# IRAUNKORTASUN MEMORIA ETA INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN EGOERA

# 2022

MONDRAGON ASSEMBLY



[ 2023ko apirila ]

EDUKIEN AURKIBIDEA

**ZUZENDARI NAGUSIAREN GUTUNA ............................................ 2**
**NOR GARA........................................................................ 5**
2.1.- Gure nortasuna ........................................................................ 6
2.2.- Misioa, bisioa eta balioak ........................................................ 6
2.3.- Gure negozio eredua ................................................................ 7
2.5.- Gure jarduera ........................................................................... 9
2.6.- Begi kolpean ........................................................................... 10
2.7.- Bereizten gaituena .................................................................. 10
**TALDE LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA GARA..........................13**
3.1.- Ingurunearen bisioa: testuinguru ekonomiko eta sektoriala .............. 14
3.2.- 2021-2024 Plan Estrategikoa ...................................................... 15
3.3.- Kudeaketa sistema integratuak ................................................... 16
3.4.- Gure berrikuntza estrategia ......................................................... 17
3.5.- Kalitatea da gure lehentasuna ..................................................... 18
3.6.- Gure enpresa hornitzaileak .......................................................... 19
**LURRALDEAN ERROTUTAKO TALDE DEMOKRATIKOA GARA.......21**
4.1.- Eredu kooperatiboa ..................................................................... 22
4.2.- Jokabide kodea .......................................................................... 24
4.3.- Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka .............................. 25
4.4.- Giza eskubideekiko konpromisoa .................................................. 26
**BERE PERTSONAK ZAINTZEN DITUEN TALDEA GARA................29**
5.1.- Elkartasuna oinarri ..................................................................... 30
5.2.- Berdintasuna eta kontziliazioa ....................................................... 35
5.3.- Gure pertsonen garapena sustatzen dugu ........................................ 36
5.4.- Gure pertsonen osasuna kudeatzen dugu .......................................... 37
5.5.- Euskararekiko konpromisoa ........................................................... 40
**PLANETAREKIN KONPROMETITUTAKO TALDEA GARA..............42**
6.1.- Ingurumenaren kudeaketako sistema ............................................... 43
6.2.- Klima aldaketa ........................................................................... 45
6.3.-Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa ........ 45
6.4.- Baliabideen erabilera jasangarria .................................................... 46
**GARAPEN KOMUNITARIOA BULTZATZEN DUEN TALDEA GARA..48**
7.1.- Sektoreko eta inguruneko elkarteetako kide izatea ............................ 49
7.2.- Garapen komunitarioa ................................................................. 50
7.3.- Hezkuntzarekiko konpromisoa ....................................................... 50
7.4.- Garapenerako lankidetza .............................................................. 51
7.5.- Fagor Komunitatea ..................................................................... 51
7.6.- Informazio fiskala ...................................................................... 52
**TXOSTENA EGITEKO PROZEDURA ...........................................53**
8.1.- Gai garrantzitsuak zehazteko prozesua ............................................ 54
8.2.- 11/2018 Legearen edukien taula informazio ez-finantzarioaren eta aniztasunaren arloan ............................................................................ 56
8.5.- Kanpo egiaztapena ...................................................................... 65



1

# ZUZENDARI NAGUSIAREN GUTUNA

(GRI 2- 22)

2022 hau ziurgabetasun urtea izan da, bai eta bat-bateko eta funtsezko aldaketen urtea ere arlo ekonomikoan, eta horiek Mondragon Assembly Groupen martxari eta kudeaketari asko eragin diote. COVID-19ak eragindako pandemia Europan eta Amerikan normalizatu da, baina Txinan gure jardueran eta gure balio katean eragina izaten jarraitu du. Hala ere, Quinhuangdaoko Visual Co Lt. Joint Venturearen integrazioan aurrera egin da, kontuen kudeaketari dagokionez, 2023an integrazio ildo horretan lanean jarraituko dugu produkzio kudeaketaren aldearekin.

2022 honetan ere hornidura falta egon da eta material elektronikoa garestitu da. 2021etik dugu egoera hori merkatuan eta maila globalean, eta horrek Mondragon Assemblyren proiektu askori eragin die zuzenean, bidalketetan atzerapenak egotea eta produkzio marjinak murriztea ekarri du-eta.

Hala eta guztiz ere, merkatuen portaera aurreikusitakoa izan da. Automobilgintzaren merkatuak susperraldi txiki bat eduki du 2021eko datuekin alderatuta, errekuntzako automobilen fabrikazioan eta salmentan, baina badirudi Europan eta AEBn automobil elektrikoetan inbertsio garrantzitsuak egiten hasi direla jada.

Eguzki energiaren merkatuak hazkunde esponentziala izaten jarraitu du, eta lantegi eta modulu lerro berri asko ireki dira, guretzat Europakoak bereziki interesgarriak izanik.

Etxetresna elektrikoen osagaien merkatuan ekoizpen maila altua izan da urtearen erdialdera arte, baina bigarren seihilekoan nabarmen jaitsi da eta gure bezeroen inbertsioak gelditu dira.

Hori guztia gorabehera, ia lantegi guztietan zailtasun horiek guztiak gainditzea lortu dugu, eta 2022ko ekitaldia oso emaitza onekin amaitu dugu azkenean, bai eskarietan, salmentetan eta ustiapen emaitzetan. Txinako filiala izan da salbuespena, han ezin izan ditugu-eta herrialdeko ekonomiaren ondorioak gainditu.

Mondragon Assemblyn gure ingurunearekin konprometitutako enpresa gara. Gure balio eta printzipio kooperatiboen ildotik, 2022 honetan mugarri batzuk lortu ditugu, Iraunkortasun Memoria honetan atseginez ezagutzera ematen dizkizuegunak eta gure interes talde guztiekin dugun konpromisoaren erakusgarri direnak.

Aurrekoaren ildotik, aurten materialtasun bikoitzaren azterketa egin dugu, iraunkortasunari dagokionez egiten dugun kudeaketarako funtsezkoak izango diren gai materialak eguneratzeko. Global Risk Report txostena hartu dugu kontuan, gure produktuen eta zerbitzuen bidez ahalik eta balio erantsi handiena emateko gai izateko eta aldi berean arriskuak eta aukerak ahalik eta hobekien kudeatzeko.

Ingurune hurbilenarekin konprometitutako enpresa gara, nagusiki ingurunean enplegu jasangarria eta kalitatezkoa sortzearekin konprometituta, enplegatuei sozietatean parte hartzea ahalbidetuta. 2022an 13 langile onartu dira kooperatibako bazkide gisa (plantillaren %8). Gainera, inguruko ikasleei erraztasunak ematen dizkiegu eta gure enpresan praktikak, karrera amaierako proiektuak eta ikasketak modalitate dualean egin ditzatela sustatzen dugu; 2022an 20 ikasle baino gehiagori aukera eman zaie dedikazio, lan eta modalitate desberdinekin.

Gure balio eta printzipio kooperatiboen ildotik, tokiko 60 hornitzaile ingururekin eta bertako hainbat talde soziokulturalekin lankidetzan ari gara. Eta Fagor Taldeko kide garen heinean, iraunkortasuna sustatzen duen Fagor 2030 proiektuan parte hartzen dugu.

Ingurumen kudeaketa ezin hobea egiten dugu, bereziki sortzen ditugun hondakinekin. ISO14000 sistemaren arabera egiten dugu kudeaketa hori, eta sistema horren ziurtagiria dugu. Era berean, gure jarduerak daukan inpaktua arintzen saiatzen gara, gure instalazioetan instalatutako panelekin eguzki energia sortuz eta sortutako energia hori autokontsumorako erabiliz. 2022ko ekitaldian panel gehiago jarri dira MAko eraikin nagusiaren fatxadan, BIPV teknologiarekin (Buildin Integrated Photo Voltaics). Alemanian dugun plantan ere jarri ditugu eguzki panelak.

Nazioartean hornitzeko izango diren eguzki energia ekoizteko lerroen fabrikatzaile garen heinean, munduan energia berdeak erabiltzea bultzatzen dugu zeharka.

Zuzendaritza Nagusitik eta Kontseilu Errektoretik, 2022an Mondragon Assemblyko filialetan lortutako mugarriei ere balioa eman nahi diegu, erakundearen funtsezko zatia baita talde bezala enpresa jasangarriago baterantz bideratzeko orduan. Aurten filialetan hainbat ekimen egin dira azpiegiturak hobetzeko, iraunkortasunari begira.

Azken batean, 2022 urte bizia izan da Mondragon Assembly-rentzat, eta erronka bat, proiektu berri ugarirekin eta emaitza positiboekin. Ilusioz eta gogoz egiten diogu aurre etorkizunari, esfortzua eta lana eginez, gure ingurunean inpaktu positiboa edukitzen jarraitzeko legatu hori uzteko egunez egun eraikitzen dugun gizartearekin.




*Mikel Gantxegi*

*Zuzendari nagusia*



*Igor Herrarte Letona*

*Lehendakaria*

# 2

# NOR GARA

## 2.1.- Gure nortasuna

*“Mondragon Assembly ekipo eta makina automatikoen sektoreko erreferentea da mundu mailan.”*

(GRI 2-1, 2-2, 2-6)

Mondragon Assembly **nazioarteko talde** bat da, **automatizazio eta muntaketa soluzioak garatzen espezializatua.** Enpresa nagusia, Espainian, sozietate kooperatibo bat da, 1977an sortu zen, eta ekoizpen eta muntaketa teknologien automatizazioaren arloan aitzindarietako bat da.

*“Espezialista gara muntaketa prozesuak automatizatzeko askotariko ekipoen diseinuan, fabrikazioan eta instalazioan.”*

Mondragon Assembly S.Coop. da enpresa nagusia. Mondragon Taldeko sozietate kooperatibo bat da, Mondragoneko Industria Automation dibisioan sartuta dago, eta Fagor Taldeko kidea da.




Munduan zehar dituen filialek osatutako sozietate propio bat du, non hainbat negozio eta merkaturatze eremu dauden.

Hauek dira Taldeko sozietate garrantzitsuenak:

- Mondragon Assembly S.Coop (Sozietate nagusia)
- Mondragon Assembly SA de CV
- Mondragon Assembly do Brazil
- Mondragon Assembly GmbH
- Mondragon Assembly USA
- Mondragon Assembly SA
- Mondragon Assembly Kunshan Co.Ltd
- Mondragon Assembly Tunisia
- Mondragon Assembly India
- Quinhuangdao Visual Automation Co Ltd.

Txosten honetan, enpresa fabrikatzaileen datuak hartuko dira soilik kontuan, ez dira sartzen ez merkataritza-filialen datuak, ez SFK-renak ere (jarduerarik gabeko enpresa, taldeak parte hartzen duena).
Bestalde, Mondragon Assemblyk Txinako Quinhuangdao Visual Automation Co Ltd. enpresan parte hartzen du. Enpresa horren integrazioa 2022an hasi da finantza-arloan, baina ez da txosten honetan jasoko, 2022ko ekitaldian ez baitago txosten honetan aztertutako beste gai batzuei buruzko datu egiazkorik.

2023an, entitatearen ekoizpen prozesua integratuko da, eta, ondorioz, datorren urteko txostenean argitaratuko dira datuak.

## 2.2.- Misioa, bisioa eta balioak

Mondragon Assembly S.Coop.eko zuzendaritzak bere bisioa, misioa eta balioak ezarri ditu, kooperatibaren plan estrategikoa eta politika garatzeko abiapuntu gisa.

### Misioa

Talde dinamikoa eta konprometitua gara, Mondragon Assembly Automatizazio Soluzio Industrialak garatzen dituen kooperatibako kide izatearen sentimendu handikoa: ez ditugu makinak bakarrik saltzen, hainbat sektoretan konfiantza sortzen duen zerbitzu bat eskaintzen dugu, nazioartekotzearen alde eginez.

### Bisioa

Merkatuan muntaketa prozesuetan automatizazio beharretarako soluzio eta ezagutza errentagarri eta egokiak ematea, sistema eta teknologia esperimentatuak eta frogatutako fidagarritasuna dutenak aplikatuz, gure jardueraren erreferente argiak izanda munduan.

Gure bezeroei segurtasuna eta konfiantza ematea, haientzat egiaztatutako kalitatea duen bazkide bat izanda eta automatizazioan dituzten arazoak konpontzen lagunduta.

### Balioak

**1. Proaktibitatea / Lidergoa**
Nire gaitasunen garapena lantzea, nire eragin arloan protagonista/arduradun bihurtuta eta balio hori kooperatibaren zerbitzura jarrita.

**2. Berrikuntza**
Irtenbide alternatibo eta/edo berritzaileen garapena eta ezarpena bultzatzea, bai eguneroko egoeretan, bai bat-batean agertzen zaizkigunetan.

**3. Pertsonen garapena**
Besteen ikaskuntza eta/edo garapena sustatu, erraztu eta bultzatzea, haien eta Kooperatibaren beharren azterketatik abiatuta.

**4. Talde lana**
Besteekin lankidetzan eta elkarlanean aritzea, konfiantzaz, helburu komuna lortzeko elkarri lagunduz.

**5. Bikaintasuna**
Konpromisoak betetzean beti bikaintasuna bilatzea, hobetu beharreko eremuak eta hobetzeko aukerak identifikatzeko eta bezeroari balio gehiago emango dioten lekuetan ezartzeko jarrera izanda eta prest egonda, merkatuan erreferentzia izateko.

**6. Bezeroarenganako hurbiltasuna**
Erakundea bideratzea bezeroarekin harreman pertsonalizatuak eta hurbilekoak sortu eta beti hala izatea zaindu dezan, aholkularitzarako eta eskaintzari buruzko proposamenen lanketarako aukerak sortuta.

## 2.3.- Gure negozio eredua




(GRI 2- 6)

Eremu horietako bakoitzean egiten dituen jarduera nagusien artean daude giltza-eskuan makina-lerroak garatzea eta contract-manufacturing, munduko edozein lekutan soluzioak eskaintzeko gai izateko.




Merkatura eta bezeroengana etengabe hurbiltzearen ondorioz, Mondragon Assemblyk Aretxabaletan duen lantegian **funtsezko negozio unitate eta jarduera** hauek garatu dira:

### Eguzki energia
Liderrak gara Europan, **eguzki moduluak fabrikatzeko ekipo teknologikoen ekoizpenean**, abangoardiako hainbat teknologiaren inplementazioari esker. Sistema fotovoltaikoak ekoizteko giltza eskurako makinak eta lerroak diseinatzen eta hornitzen ditugu, goi mailako teknologiarekin.

### Automatizazioa
Gai gara gure bezeroen beharrak ulertzeko, eta **industriako osagarrien fabrikazioan egiten diren muntaketa prozesu ugarietarako soluzio modularrak eskain ditzakegu**, hainbat merkatutarako: automobilgintza, osagai elektrikoak, ekipamendu medikoa, etxetresna elektrikoetako osagaiak, kosmetikoak, etab.

### E-mugikortasuna eta energia biltegiratzea
**Sistema berritzaile eta malguak dituzten soluzioak** eskaintzen ditugu, **moduluak eta battery packak fabrikatzeko eta hidrogeno pilak ere fabrikatzeko, hainbat sektoretarako**, esaterako, mugikortasunaren eta energia geldikorraren sektoreetarako, beti gure bezeroen premietara egokituta.

## 2.4.- Munduko presentzia

### NAZIOARTEKO PRESENTZIA

*GURE BEZEROAK DAUDEN LEKUAN GAUDELAKO*

*"40 urte baino gehiagoko esperientziarekin, Mondragon Assembly mundu mailako enpresa da, eta hainbat herrialdetan dago presente."*




(GRI 2-1, 2-2)

**Taldearen egitura**

Mondragon Assembly Taldeak Aretxabaletan (Gipuzkoa, Espainia) du egoitza nagusia, eta 6 ekoizpen planta ditu, Brasilen, Mexikon, Frantzian, Alemanian eta Txinan.

Gainera, Taldeak hiru bulego tekniko komertzial ere baditu, Indian, Menan eta Estatu Batuetan zerbitzua ematen.

Mondragon Assemblyren lantokiak hemen daude:

| | Sozietatearen izena | Herrialdea |
|---|---|---|
| SOZIETATE NAGUSIA - EGOITZA NAGUSIA | MONDRAGON ASSEMBLY S.COOP. | ESPAINIA |
| MENDEKO SOZIETATEAK - EKOIZPEN LANTEGIAK | MONDRAGON ASSEMBLY GMBH | ALEMANIA |
| | MONDRAGON ASSEMBLY DO BRASIL COM. IMP. E EXP LTDA | BRASIL |
| | MONDRAGON ASSEMBLY KUNSHAN CO.LTD. | TXINA |
| | MONDRAGON ASSEMBLY | FRANTZIA |
| | MONDRAGON ASSEMBLY S.A. DE C.V. | MEXIKO |
| MENDEKO SOZIETATEAK - FILIAL KOMERTZIALAK | MONDRAGON ASSEMBLY | TUNISIA |
| | MONDRAGON ASSEMBLY USA,INC. | ESTATU BATUAK |
| | MONDRAGON ASSEMBLY | INDIA |
| MENDEKO SOZIETATEAK – PARTAIDETZAKO ENPRESAK | SFK | ESPAINIA |
| | QUINHUANGDAO VISUAL AUTOMATION CO LTD. | TXINA |

**Ehunka proiekturen garapena, garapen jasangarria sustatzeko gaitasuna eta nazioartean duen presentzia dira Mondragon Assemblyren indarguneak.**

## 2.5.- Gure jarduera

(GRI 2- 6)

Mondragon Assembly **kooperatiba bat da, eta enpresa jarduera arduratsu eta jasangarria garatzen du**, jokabide kode batekin, legezkotasuna betetzearekin eta bezeroentzat eta beste interes talde batzuentzat balio erantsia sortzearekin bat datorren errentagarritasuna bilatuta.

Hortik aurrera, Talde eredua eta, beraz, zorroaren kudeaketa zutabe hauetan oinarritzen da:

- **Talde asmoak.**
- **Hornitzaile global aitortua izatea.**
- **Bezeroei egiten dien ekarpen teknologikoa ezaugarri bereizgarri izatea.** Mondragon Assembly bezeroen partner teknologiko bat da.
- **Lantegi autonomoak** garatzea (ikuspegi teknikotik zein finantzariotik).
- Merkatu globaletako **bezero globalei** eta tokiko merkatuetako tokiko bezeroei **erantzunik onena emateko** koordinazioa.

Bestalde, eguneroko jardueraren garapenean, Mondragon Assemblyko proiektu bakoitza desafiatzailea eta bakarra da. Horien kudeaketa konfiantzan, hazkunde profesional eta pertsonalean, talde lanean, horien nazioarteko izaeran eta goi teknologiaren erabileran oinarritzen da.




## Gure produktuak eta zerbitzuak

Mondragon Assembly S.Coop.eko produktu eta zerbitzuen portfolioa hauek osatuta daude:

- Automobilgintza sektoreko ekoizpen prozesuak automatizatzea
- Osagai elektronikoen ekoizpen prozesuak automatizatzea
- Ekipo medikoen ekoizpen prozesuak automatizatzea
- Osagai elektrikoen ekoizpen prozesuak automatizatzea
- Kosmetikaren sektoreko ekoizpen prozesuak automatizatzea
- Giltza eskurako ekoizpen lerroak
- Modulu fotovoltaikoak ekoizteko giltza eskurako lerroak
- Modulu fotovoltaikoen banakako makinak
- Contract manufacturing
- Proiektu globalak

Gainera:

- Moduluen teknologia berriak
- Enpresa berriak garatzeko laguntza, fabrikazioa
- 4.0 industria eta diagnosi kontrola
- Modulu eta battery-pack-en soluzioak, energia biltegiratzeko eta e-mugikortasunerako
- Hidrogeno teknologietako soluzioak
- Ekoitzitako makinen/lerroen gaineko laguntza bezeroentzat
- Aholkularitza eta mantentze lan teknologikoak
- LTZ: Lerroen mantentze lanetarako eta kontrolerako zerbitzuak

## 2.6.- Begi kolpean




*2022 urteko datuetan oinarrituta

## 2.7.- Bereizten gaituena

*"Mondragon Assembly, MONDRAGON Korporazioko Automobilgintza dibisioaren eta Fagor Taldearen barruan dago, eta **haien balio, printzipio eta enpresa eredu aparta berak ditu.***

*Kooperatiba da Mondragon Assemblyren muina. Bere balioak, printzipioak eta kultura negoziotik haratago doaz. **Bere kudeaketa eredua pertsonengan eta inguruan duten eta axola dien ingurunean zentratzen da."***

(GRI 2- 23)

Mondragon Assembly **MONDRAGON Taldeko** kidea da, munduko korporazio kooperatiborik handieneko kidea, alegia; izan ere, 5 kontinenteetan presentzia duten 140 filial baino gehiago dituzten 90 kooperatibak baino gehiagok osatzen dute Mondragon Taldea, lau negozio arlo hauetan antolatuta: Finantzak, Industria, Banaketa eta Ezagutza. MONDRAGON Taldeak bere unibertsitatea du, eta I+Gko 15 zentro, eta lehiakortasun inklusiboko eredutzat hartzen da nazioartean.

**Oro har, MONDRAGONeko kooperatibek 11.000 M€ baino gehiago fakturatzen dituzte eta 80.000 pertsonari baino gehiagori ematen diote enplegua mundu osoan**, pertsona horietatik %45i baino gehiagori industria arloan. MONDRAGON Taldeak lankidetzarako eta elkartasunerako hainbat mekanismo ditu, erresilienteagoak egiten dituztenak eta funtsezkoak izango direnak datozen urteetako eraldaketei arrakastaz heltzeko.

Horrez gain, Mondragon Assembly **Fagor Taldeko** kidea ere bada, urtean 1.000 M€ baino gehiago fakturatzen dituen eta mundu osoan

10.000 langile baino gehiago dituen 8 kooperatibek osatutako industria kooperatiben talde bateko kidea, alegia.

Fagor Taldean **Fagor 2030 jasangarritasun estrategia eztabaidatzen ari da, kooperatiben eraldaketa bultzatu nahi duen estrategia, digitalizazioak eta iraunkortasunak gero eta eragin handiagoa duten lehiakortasun testuinguru berri batean errentagarri izaten jarrai dezaten.**

Gainera, **Debagoiena 2030** garapen jasangarrirako sarearen kide fundatzaile den heinean, Fagor Taldeak inplikazio handia du bere industria jardueraren zatirik handiena garatzen duen lurraldearen iraunkortasunarekin, eta tokiko administrazioekin, unibertsitatearekin eta gizarte eragileekin lankidetzan aritzen da, 2050erako Debagoiena lurralde adimendun, inklusibo eta klimatikoki neutro bihurtu nahi duten hainbat proiektu garatzeko eta finantzatzeko.

## Lankidetzak lehiakorragoak egiten gaitu

*"Mondragon Assembly eskualdeko kooperatiba talde bateko kide da, Fagor Taldeko kide, eta haren helburu nagusiak dira **pertsonak kudeatzeko eredu komuna eta elkarren arteko lankidetzarako proiektu bat garatzea, non Taldeko kooperatibek beren jarduera garatzen duten."***

Fagor Taldeak eta MONDRAGONek lankidetzarako eta elkartasunerako hainbat mekanismo dituzte, erresilienteagoak eta lehiakorragoak egiten dituztenak. Mekanismo horiek kooperatibei funtsezko hiru alderditan laguntzera bideratuta daude:

### Emaitzen birmoldaketa:

Mekanismo honen helburua da, alde batetik, **zailtasunak dituzten kooperatiben susperraldi ekonomikoa babestea eta horretan laguntzea, ekitaldian sortutako galeren zati bat konpentsatuz, testuinguru ekonomiko zailetan beren enpresa proiektuak bideratu ahal izan ditzaten.**

Horrela, soberakin positiboak dituzten kooperatibek gutxienez emaitzen %10 jartzen dute emaitza negatiboen %30era arte konpentsatzeko, horrela galerak dituen kooperatibaren ondare narriadura arintzeko. Aldi berean, **elkartasuna aldarrikatzen du itzulkin eta estornu kooperatiboen banaketan (derrigorrezko funtsak hornitu ondoren bazkideei bueltan etortzen zaien irabazien edo galeren zatia), bilakaera indibidualetatik haratago.**

Era berean, Birmoldaketaren esparruan, emaitza positiboak dituzten kooperatibek emaitza horien % bat bideratzen dute elkarren arteko lankidetzarako eta elkartasunerako beste mekanismo bat eratzera, kooperatibei Taldeko kooperatibetako bazkide langileen arteko ordainsari aldeak neurri batean arintzen laguntzeko eta horretan babesteko, ondare egoera hauskorra eduki dezakete-eta.

### Enpresa garapenerako laguntza:

**MONDRAGONeko kooperatiba guztiek, urtero eta oro har, bere emaitza positiboen %5 ematen dizkiote MONDRAGON Fundazioari, itzuli beharrik gabe, MONDRAGONeko Esperientzia Kooperatiboaren kohesioa eta garapena ahalbidetuko duten proiektuak garatzera bideratutako Kohesio eta Garapen Funtsa eratzeko.**

Zehazki, funts horren xedea Sustapen Zentroa finantzatzeko, bideragarritasun azterketak egiteko edo I+G+B proiektuak finantzatzeko bideratzen da, besteak beste. Era berean, eta orokorrean ere, urtero emaitza positiboen %5aren pareko ekarpena egiten da, inbertsio gisa, MONDRAGON Inversiones S.Coop.ek kudeatuko duen Nazioarteko Hedapen Funts bat eratzeko.

**Baliabide horien xedea da kooperatibei nazioarteko hedapen eta hazkunde prozesuetan laguntzea, enpresa proiektuak indartzea edo kooperatiben ondare egiturak indartzea, besteak beste.**

### Lagun Aroren prestazioak:

MONDRAGONeko kooperatibak **LagunAro izeneko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko entitateko kideak dira. Erakunde horren ardura da bazkideek (mutualistek) beren lan indizearen arabera egindako ekarpenek osatutako ondare funts bat kudeatzea, mutualistentzako prestazio definituko pentsioak estaltzeko sistema bat**

**bermatzeko,** zeinarekin LagunArok mutualista bakoitzaren izenean langile autonomoen erregimenean kotizatutakoaren arabera gizarte segurantzak aitortutako erretiro prestazio publikoak osatuko baitira. Erretiro prestazio horiekin batera mutualisten alarguntasunari edo zurztasunari dagozkionak ere kudeatzen ditu.

Era berean, mutualistek egindako ekarpenen beste zati bat prestazioak, esaterako, osasun laguntza, amatasuna eta aitatasuna, aldi baterako ezintasun prozesuei buruzkoak edo enplegurako laguntza modu mutualizatuan finantzatzeko erabiltzen da. Enplegurako laguntza elkarren arteko lankidetzarako tresna bat da, aldi ekonomiko txarrei aurre egiteko diseinatua, eta kooperatibekin batera proposatzen eta finantzatzen dituen neurrien artean daude bazkideen enpleguari eustearekin lotura zuzena dutenak, aurre erretiroak finantzatuz, egutegi mugikorrak, langabezia efektiboa eta mutualisten birmoldaketa profesionala baliatuz eta Lagun Arora elkartutako kooperatiben artean bazkideak aldi baterako zein behin betiko birkokatuz.

3

# TALDE LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA GARA

## 3.1.- Ingurunearen bisioa: testuinguru ekonomiko eta sektoriala

2022. urtea ziurgabetasunez beteta egon da, eta arlo ekonomikoan bat-bateko eta funtsezko aldaketa ugari egon dira, Mondragon Assemblyren martxan eta kudeaketan eragin handia izanda:

- Covid-aren pandemiatik eratorritako egoera normalizatu egin da Europan eta Amerikan, baina Txinan 2022ko abendura arte egon dira indarrean pandemia geldiarazteko neurri zorrotzak.
- Munduko hornidura kateen analisiari dagokionez, merkatuan hornidura falta egon da eta material elektronikoak garestitzen jarraitu du.
- Errealitate horri gehitu behar zaio gasaren, elektrizitatearen eta lehengaien prezio igoera, eta inflazioa, oro har, neurri handian Ukrainako gerrak eraginda.
- Bestalde, urte amaieran etxetresna elektrikoen sektoreko salmentek behera egin zutela ikusi zen.

Sektore batzuk ere hazi egin ziren, eta indarberritu, esaterako, hauek:

- Automobilgintzaren merkatua, susperraldi txiki bat eduki duena; eta
- Eguzki energiaren merkatua, modu esponentzialean hazi dena, lantegi eta modulu lerro berri ugari irekita, guretzat Europakoak bereziki interesgarriak izanik.

(GRI 3- 3)

**Hori guztia gorabehera, ia lantegi guztietan zailtasun horiek guztiak gainditzea lortu dugu, eta 2022ko ekitaldia oso emaitza onekin amaitzea lortu da, bazkideen eta kolaboratzaileen lanari eta esfortzuari esker.**

Testuinguru ekonomiko eta sektorialaren azterketa honetan oinarrituta, honako arrisku hauek eta kudeaketako eta kontroleko neurri hauek identifikatu dira:

| Arriskua | Kudeaketako eta kontroleko neurriak 2022an |
|---|---|
| Aplikazio azkarreko Europako legeen arloko aldaketa garrantzitsuak: Compliance penalarekin, ingurumenarekin, iraunkortasunarekin eta segurtasunarekin lotutako gaietan batez ere | KSIaren arloko gaietan sei hilean behingo legezko auditoretzak, korporazioaren hainbat forotan parte hartzea eta arau aldaketa berrien gaineko etengabeko formazioa |
| Lan karga handiak, eta langile berrien eta profil estrategikoen beharra | Langileak hartzeko planak ezartzeko lehen mailako helburuak |
| Prozesuak arindu eta digitalizatzeko beharra | Digitalizazioa garatzeari eta kalitate prozesuaren analisiari buruzko helburuak |
| Merkatuko lehiakortasuna kostuetan, eta Txinako lehiakideak | Eguzki energiaren negozioan egituraren berrantolaketa finkatzea |
| Negozioetan, proiektuak egin ahal izateko talentua galtzea barruan. | Prestakuntza ibilbideen planak sortzea lanbideen arabera |
| Espazio fisikoa egokitzeko beharra | Instalazioak egokitzeko eta dimentsionatzeko aukerak aztertzea |

## 3.2.- 2021-2024 Plan Estrategikoa

(GRI 2- 24)

Jarduera esparru horretan, **Mondragon Assemblyren 2021-2024 Plan Estrategikoak erronka hauek ditu barruan, lantegi guztietan garapen jasangarria eta hazkundea lortzeko.**

**00. DIMENTSIONAMENDUA:**
Errentagarritasunari lehentasuna ematea salmenten aurretik, **emaitza positiboak** eta **enplegu** maila **egonkorra** edukitzen jarraitzeko.

**01. ANTOLAKETA EREDU GLOBALA:**
**Mondragon Assembly Taldearen garapen etapa berria,** funtsean **filialen autonomiaren eta Taldearen indar-hartzearen arteko oreka**, sinergien sorrera eta jardueraren koordinazioa bilatuta, azken urteetako aurrerapenak finkatzeko eta komertzialen eta teknikarien arteko koordinazioa indartzeko.

**02. DIBERTSIFIKAZIOA:**
**Negozio zorro errentagarri eta orekatua** bermatzea, **barne zein kanpo jarduera eta negozio ideia berrietara irekita egonda**, Mondragon Assemblyren DNArekin bat etorrita. Merkatuetan ere dibertsifikatzea.

**03. MARKA GLOBALAREN ERREKONOZIMENDUA MERKATUAN:**
**Aitortua izatea enpresa lider eta global gisa**, eta ezaguna izatea **tokian dituen gaitasun indartsuengatik** eta bezero fidelen zorro bat izateagatik, eta **kalitateari eta bezeroaren zerbitzura bideratuta** beti **eskaintza lehiakorra** izategatik, eta Industrian eta Berrikuntzan erreferente direnekin aliantzak egiteagatik.

**04. BEREIZKETA TEKNOLOGIKOA:**
**Mondragon Assemblyren balio proposamena, teknologikoki aurreratuak diren soluzioen eskaintzagatik ezaguna.** Abiadura eta **Berrikuntzaren eta Merkatuaren arteko hurbilketa. Eraldaketa digitala**, bai barne kudeaketaren aplikazioan, bai bezeroentzako zerbitzuaren garapenean.

**05. TALENTUA ERAKARTZEA ETA ATXIKITZEA:**
**Enpresa global** bat garatzea, **lankidetzaren eta erantzukizunaren kultura duten pertsonez osatua; herrialde bakoitzera egokitutako sistemekin eta kide izatearen harrotasun handiarekin.** Ingurunearekin harremana izatea eta **haren garapena sustatzen duten proiektuetan inplikatzea**, enpresa jarduera kalitatezko enpleguarekin mantenduz.

Plan Estrategikoaren hedapena urtero egiten da Kudeaketa Plan baten bidez, eta horren aurrerapena aldizka ebaluatzen da.

Helburu horiek Aretxabaletako eta filial bakoitzeko urteko kudeaketa planaren helburuak definituz gauzatuko dira.



## 3.3.- Kudeaketa sistema integratuak

(GRI 2- 23)

*"Mondragon Assemblyk badaki enpresa kudeaketa eraginkorra izateko garrantzitsua dela alde interesdun guztientzat argia, dinamikoa eta erraza izango den sistema integratua izatea."*

Gaur egun kudeaketa sistema integratu batekin lan egiten du, non honako arau hauek sartzen diren:




Mondragon Assemblyk Kudeaketa Sistema Integratua berrikusten da, baloratzeko eta datorren urtean landu beharreko ekintzak planifikatzeko.

### Kudeaketa sistema integratuaren politika

Mondragon Assembly S.Coop.eko zuzendaritzak kooperatibaren Kudeaketa Politika ezarri du, enpresak estrategiari, pertsonei, interes taldeei eta erantzukizun sozialari dagokienez dituen asmoak eta jarraibideak markatzeko.

#### POLITIKAREN ADIERAZPENA

- **Mondragon Assembly lankidetza estuan aritzen da bezeroarekin,** haren hurbiltasunaren bila eta haren benetako premiekin identifikatzeko eta premia horiekin konprometitzeko, haren gogobetetzea lortzeko.
- **Mondragon Assembly pertsonengan** eta talde lanean **oinarritutako erakundea da.**
- **Mondragon Assemblyk berrikuntzaren eta garapenaren alde egiten du, I+G+B proiektuak eta etengabeko hobekuntza sustatuz,** etorkizuneko lehiakortasuna bermatzeko eta bezeroei eta gizarteari balio erantsia emateko bide gisa.
- **Mondragon Assemblyk** konpromisoa hartzen du Kalitatearen, Laneko Segurtasun eta Osasunaren, Ingurumenaren, Erantzukizun Sozial Korporatiboaren, Compliance penalaren eta I+G+Baren **kudeaketa** enpresaren jarduera guztietan eta erakundearen maila guztietan **integratzeko**, erantzukizunak definituz, eta arrakastaz gauzatuko direla bermatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eta prestakuntza egokia emanez.
- **Mondragon Assemblyk** Garapen Jasangarria txertatzen du maila guztietako erabakietan.
- **Mondragon Assemblyk nazioartekoa izateko bokazioa** du, eta mundura eta beste kultura batzuetara zabalik dago, beti bere berezitasunak errespetatuz.

Mondragon Assemblyko goi zuzendaritzak hartutako beste politika batzuetan oinarritzen da kudeaketa sistema integratua. Politika horiek 2022ko otsailean eguneratu dira, eta kooperatibaren webgunean argitaratuta daude:

- Jokabide Kodea
- Pribatutasuna eta Konfidentzialtasuna
- Ustelkeriaren aurkako politika
- Gatazka eta jazarpena
- Dirulaguntzak
- Interes gatazka

### Ziurtagiriak

Mondragon Assembly S.Coop.-ek 5 ziurtagiri ditu, eta horiekin ziurtatuta dago bere prozesu, produktu eta zerbitzuak bikainak eta kalitatezkoak direla.

Mondragon Assembly Group iraunkortasunarekin konprometitutako taldea da. Horren adierazgarri dira EcoVadis-en egindako kanpo-ebaluazioaren urteko emaitzak eta garapen jasangarrirako planen eta ekintzen garapena.

Gainera, 2022an, Mondragon Assembly Taldeak kudeaketa sistemen optimizazioan aurrera egiten jarraitu zuen. Gaur egun, lantegietako lauk 9001 ziurtagiria dute kalitatean, eta Txinako lantegiak aurreikusten du ziurtagiria 2023an lortuko duela.

## Filialetako kudeaketa

**Filialetako kudeaketari** dagokionez, 2020tik filialekiko lankidetza lantzen ari da, Kudeaketa Sistema Integratuen garapenarekin lotutako ekintzak bultzatzeko. 2022an compliance penalarekin, karbono aztarnarekin, zibersegurtasunarekin eta makinen segurtasunarekin (kalitatea eta produktuaren segurtasuna) lotutako gaien gaineko komunikazioan eta kontzientziazioan lagundu zaie.

2022an, taldeko kudeaketa sistema integratuen plataforma digitala ezarri da Brasilgo filialean, eta Mexikon eta Alemanian ezartzeko lehen urratsak egin dira. Tresnaren txostenak euskarara, portugesera eta alemanera itzultzeari ere ekin zaio.

2022aren amaieran, India eta Mexikoko filialetako bereziki eraginpean dauden pertsonen compliance penaleko politiken sinadura eguneratu da.

## 3.4.- Gure berrikuntza estrategia

*"Mondragon Assembly Europako erreferente bihurtu da automatizazio eta muntatze teknologia eta prozesuetan, eta berrikuntza proiektu ugaritan parte hartzen du."*

(GRI 3- 3)

1977an sortu zenetik, **Mondragon Assemblyk berrikuntzaren aldeko apustua egin du hazkunde aurrerapenerako tresna gisa, eta baliabideen zati handi bat ikerketa eta produktu berrien garapena sustatzera bideratu du,** baita zerbitzu integralen eskaintza zabaltzera ere. Gainera, 2002tik, Mondragon Assembly S.Coop.ek bere zentro teknologiko propioa du, Konikerren bidez, epe ertain eta luzeko teknologiak garatzera eta bereganatzera bideratuta.

2022an, **Taldeak 2.359.052€ inbertitu ditu berrikuntzan**. Horrek esan nahi du fakturatutakoaren %6.9a berrikuntza inbertsioetarako izan dela.

Jasotako dirulaguntza publikoei dagokienez, nabarmentzekoa da administrazio publikoek Taldearen jarduerari ematen dioten laguntza, bereziki ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jardueraren garapenean.

Erantsitako galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratutako ustiapen-dirulaguntzen zenbatekoa 1.854.692 eurokoa da 2022ko ekitaldian, eta horietatik 1.441.237 euro egoitza soziala Espainian duen sozietate nagusian emandako dirulaguntzei dagozkie.

Hauek dira ikerketa eremu nagusietako batzuk:



**EGUZKI ENERGIA**

Eguzki-aplikazio berrietarako makinak; BIPV, eraginkortasun handiko moduluak fabrikatzeko makinak HJT teknologiarekin

**ROBOTIKA**

Ekoizpen-prozesuen eraginkortasuna hobetzea, ezagutza handituz eta robotikaren entrega hobetuz.

**4.0 INDUSTRIA**

Bezeroei Zerbitzu-erantsia eta aurreratuak emateko datuak denbora errealean sortu eta eskuratzeko sistemak

**BATERIAK**

Litiozko bateriak muntatzeko giltza-eskura makina-lerroak diseinatu eta simulatzea, kontrol propioak garatuz

Azpimarratzekoa da berrikuntzan, ikerketan eta garapen proiektuetan zortzi erakunderekin lankidetzan ari garela, hainbat proiektu aktiborekin. Informazio gehiago gure webgunean: https://www.mondragon-assembly.com/es/innovacion/

## 3.5.- Kalitatea da gure lehentasuna

(GRI 2- 25)

*“Mondragon Assemblyk ekoizpen lerro automatikoak garatzen ditu, non kalitatea funtsezko faktorea den, eta ezagutza teknologikoen maila handia ematen duten soluzioak eskaintzen ditu”*

Gure produktu guztiak **kalitate arau zorrotzenen arabera fabrikatzen dira, eta kalitate kontrol zorrotzak egiten zaizkie;** gainera, gure lerroekin interakzioan dauden pertsonen segurtasuna bermatzen dugu, bai eta gure prozesu guztien kalitatea ere, guk geuk ziurtatuz eta/edo gure produktuen kalitatea egiaztatzen duten enpresa eta erakundeekin lankidetzan arituz.

Urteetan, kalitate prozesu argiak ezarri ditugu, eta hori gure langileen eta bezeroen gogobetetasunean nabaritzen da.

Mondragon Assembly berritzaile, zintzo eta gardena denez eta bezeroa ardatz izanik eta kudeaketan bikaintasuna bilatuz jarduten duenez, bere bezeroen konfiantza irabazi du, eta, horri esker, erreferentzia talde bihurtu da haientzat guztientzat.

**Izaera berritzailea, kudeaketako bikaintasuna eta bezeroarekiko hurbiltasuna dira Mondragon Assembly mundu osoko bezeroentzat erreferentziako talde bihurtu duten hiru balioak.**

### Gure bezeroen osasuna eta segurtasuna

Bere kalitate prozesuaren esparruan, Mondragon Assemblyk bere instalazioen barruan fabrikatutako makina bakoitzaren segurtasuna egiaztatzen du. Muntaketa fasearen ondoren, makinaren segurtasuna egiaztatzen da, makinaren berezko arriskuei, erabiltzaileentzako arrisku identifikazio posibleei eta lerroa prest jartzeari dagokienez.

Ondoren eta makina helmugara joan aurretik, hainbat egiaztapen egiten dira, besteak beste, makina baliozkotzeko testa eta makinaren espedienteak CE ziurtagiriaren araudia betetzen duela egiaztatzea, bai barne auditoretzen bidez, bai baliozkotzeko kanpo auditoretzen bidez, dagokion egokitasun ziurtagiria, sarrerakoa eta/edo lerrokoa (integrazioa) emanez, fabrikatutako makina motarekin bat etorriz.

Batzuetan eta bezeroak eskatzen duenean, hirugarrenek makinen segurtasuna egiaztatzen eta ikuskatzen dute, gure instalazioetan eta/edo helmugako instalazioetan.

Zerbitzu-estandarren barruan, kalitatezko zerbitzua eskaintzeko, talde mailako konfidentzialtasun-politika bat definitu da, prozesu guztietan konfidentzialtasun maximoa bermatzeko jarraitu beharreko pautak adierazten dituena. Pribatutasuna eta konfidentzialtasuna gordetzen dira jabetza industrialari, datu pertsonalak babesteari eta konfidentzialtasunari dagokienez. **2022an ez da bezeroaren pribatutasuna urratzeari eta bezeroaren datuak galtzeari buruzko erreklamaziorik identifikatu**.

## 3.6.- Gure enpresa hornitzaileak

Mondragon Assembly nazioartean presentzia dauka, balio kate osoari erantzuten dioten sei ekoizpen lantegiei esker. Gainera, 2021etik Visualen ere parte hartzen du, Eguzki energiako negozioaren lerroetan txertatzen den makinaren zati bat bertan ekoizten baita. Horregatik jarraitu nahi du **munduko edozein lekutan soluzioak eskaini ahal dizkion eta bere kalitate estandarrak betetzen dituzten hornitzaileen sare bat edukitzen.**

Egunero egiten duen lana hornitzaileekin lankidetzan aritzean oinarritzen da, izan ere, **bere ustez, hornitzaileak dira bere bezeroei soluziorik onena eskaintzeko duen aliatu nagusia.** Bazkide berrien bila dabil beti, bere bezeroei kalitate handieneko soluzioak baldintza onenetan ematen lagunduko dioten bazkideen bila.

Bazkideengan kalitate handiko soluzioak, prezio lehiakorrak, ondo antolatutako logistika, fidagarritasuna eta malgutasuna bilatzen ditu, eta hori ez ezik, jendearekin eta ingurumenarekin arduratsuak diren hornitzaileak izatea ere bilatzen du. Talde sozialki arduratsua denez eta bere jendearekin eta gizartearekin konprometituta dagoenez, bere hornitzaileek ezaugarri horiek berak edukitzea nahi du.

Bere helburua da Mondragon Assemblyn aplikatutako printzipioak hornitzaileetan ere aplikatzea. Lantokiko osasuna eta segurtasuna jarduera guztietan integratzen dituzten enpresak, ingurumena errespetatzen dutenak eta ikuspuntu etiko eta sozialetik arduratsuak direnak nahi ditu lankide izan.

2022an, Mondragón Assembly Group-ek 1.640 hornitzailerekin lan egin zuen, eta egindako erosketen %57.52 tokiko-hornitzaileetara egon zen bideratua.

2022an, 79 hornitzaile berri ebaluatu dira.

| HORNITZAILEAK | Hornitzaile kopurua | Erosketen zenbatekoa | Guztiarekiko % |
|---|---|---|---|
| Tokikoak | 1.245 | 44.150.737 | %57.52 |
| Kontinentalak | 279 | 20.375.401 | %26.54 |
| Munduko gainerakoa | 116 | 12.240.229 | %15.94 |
| **Guztira** | **1.640** | **76.766.367** | **%100** |

*tokiko hornitzailetzat hartuko dira beren herrialdekoak ekoizpen-zentro bakoitzerako, kontinente bereko hornitzaileen kontinentalak eta kontinenteartekoak aurreko bi taldeetakoak ez direnak.

Mondragon Assemblyk lau hornitzaile familia bereizten ditu, hornidura motaren arabera:

- **Planoaren araberako piezen hornitzaileak:** mekanizazioa, galdaragintza.
- **Elementu komertzialen hornitzaileak:** elektronika, pneumatika, etab.
- **Ekipo berezien hornitzaileak:** gure lerroetan txertatzen ditugun makinak edo gailuak
- **“Outsourcing”-a:** era askotako zerbitzu azpikontratatuak.

*“Mondragon Assemblyk bere gain hartzen du bere hornitzaileen, kontratisten eta kanpoko enpresa laguntzaileen artean kode honetan jasotako jarraibideekin bat datozen praktikak sustatzeko eta bultzatzeko konpromisoa, eta behar diren bitartekoak jarriko ditu kode hau ezagutu, ulertu eta bete dezaten.”*

### Erosketa baldintza orokorrak

Mondragon Assemblyk bere webgunearen bidez publiko egiten ditu bera presente dagoeneko herrialdeetako erosketa baldintza orokorrak: Espainia, Frantzia, Alemania, Brasil, Mexiko eta Txinako erosketa baldintzak, hizkuntza desberdinetan.

Baldintza horien helburua da hornitzailearen eta eroslearen arteko harreman juridiko-komertzialak arautzea.

Mondragon Assemblyk hornitzaileen esku jartzen duen erosketa kontratuaren bidez, hornitzaileek baietz esaten diete definitutako erosketa baldintza orokorrei, baita jokabide kodeari ere, eta haiekin bat egiten dute.

## Hornitzailearen jokabide kodea

(GRI 2- 25)

Mondragon Assemblyren Hornitzailearen jokabide kodea **gure enpresaren jokabide kodearen luzapentzat** jotzen da, **eta haren helburua da hornitzaileen, kontratisten eta kanpoko kolaboratzaileen portaera arautzeko gutxieneko jarraibideak ezartzea, Mondragon Assemblyren enpresa kulturaren eta arau sistemaren arabera.** Kode honetan jasotako irizpideen helburua ez da suerta daitezkeen egoera edo inguruabar guztiak kontuan hartzea, baizik eta jarraibide orokor batzuk ezartzea, jarduera profesionalean norantz jo jakiteko.

Hornitzaile, kontratista eta enpresa laguntzaile guztiek jo dezakete Mondragon Assemblyren Jokabide eta Compliance Batzordera, konfidentzialki, fede onez eta errepresalien beldurrik gabe, beren jarduera profesionalean Jokabide Kodearen jarraibideen edozein urraketa jakinarazteko, posta elektronikoko helbide honetara idatziz: socialreponsibility@mondragon-assembly.com.

Jokabide Kode honek Nazio Batuen Mundu Itunetik eratorritako konpromisoak eta Mondragon Assemblyren Kudeaketa Sistema Integratuaren Politika jasotzen ditu.

## Hornitzaileen hautaketa eta ebaluazioa

(GRI 308-1, 308-2, 414-1, 414-2, 409-1)

Mondragon Assembly S.Coop.ek hornitzaileak kudeatzeko prozedura bat onartu du, horien hasierako homologazio edo aukeraketarako sistema bat ezartzeko eta horien etengabeko ebaluazioa egiteko, ez bakarrik ikuspegi teknikotik, preziotik, epeetatik eta zerbitzutik, baita ikuspegi sozialetik ere, garapen jasangarrian laguntzeko eta sozialki arduratsuak izateko.

Hornidura katearen kudeaketa arduratsua bermatzeko asmoz, 2022an, etengabeko ebaluazio prozesua aplikatu zaie 79 hornitzaileri, gizarte, kalitate, betetze penal, segurtasuneko, osasuneko eta ingurumeneko erantzukizuneko irizpideak kontuan hartuta. Kontuan hartu beharreko gaien artean, honako hauek baloratzen dira: arlo horietako kanpo ziurtagiriak, horien jarraipena egiteko barne politika eta prozedurak dituzten, eta arlo horietako jokabide-kodeak eta/edo ekintza-planak. **Hornitzaile berrien %100ek irizpide horien araberako hautaketa iragazkia gainditu zuten**, ziurtagiri horiek dituztelako edo garatze-fasean daudelako.

**Gaur egun ez da ingurumen/gizarte inpaktu negatibo garrantzitsurik identifikatu hornidura katean**: ez da identifikatu ingurumenean, gizartean edo ustelkerian inpaktu negatibo potentzialik edo errealik duen hornitzailerik, eta ebaluazio horren ondorioz ez da amaitu horietako inorekin harreman komertziala.

Era berean, **ez da giza eskubideen arloan arrisku nabarmena duen hornitzailerik identifikatu,** hala nola derrigorrezko-lana, haur-lana edo lan-behartua gisa.

Gaur egun, ebaluatzeko modua hornitzaileen segurtasunarekin eta kalitatearekin zerikusia duten gaietan oinarritzen da. Hori dela eta, 2023ko ekintza-planen barruan, Mondragon Assemblyk Aretxabaletako hornitzaileak ebaluatzeko metodologia berrikusiko du, eta hornikuntza-katearen identifikazioaren eta ebaluazioaren arloan etengabe hobetzeko bidea zehaztuko du, iraunkortasun, gizarte eta ingurumen gaiei dagokienez.

4

# LURRALDEAN ERROTUTAKO TALDE DEMOKRATIKOA GARA

Mondragon Assemblyren esperientzia korporatiboak demokrazia enpresaren eremura zabaldu du, bazkide bat/boto bat printzipioaren arabera jokatzen baitu. Bere bazkide langileek jabetzan, irabazien banaketan eta kudeaketan parte hartzen dute.

## 4.1.- Eredu kooperatiboa

*"Mondragon Assembly Garapen Iraunkorreko Helburuekin konprometitutako gobernantza eredu kooperatibo bat garatzen ari da, eta Batzar Nagusiak dira eredu horren organo gorena, non Taldearen etorkizuna zehazten duten erabaki garrantzitsu guztiak hartzen diren."*

Eredu kooperatiboaren helburuak dira bere kideen giza asmoak eta asmo sozialak asetzea, enpresa egitura errentagarria eta sendoa lortuz, eta lankidetza pertsonaren zerbitzura jartzea, munduarekin eta Korporazioa kokatuta dagoeneko ingurunearekin solidarioa izanda.

- Ulertzen du **lana dela giza asmoak pixkanaka asetzeko eta giza aurrerapena lortzeko baliabidea**, zorrotz eta arduratsu solidario izanda, banaka zein taldeka norberaren enpresa errealitatearekin konprometituta egotea errazagoa izateko.
- **Ekoizpen bitartekoen jabetza bazkide langileena da**, eta eskubide sozialen erabilera pertsonaren lanari lotuta dago, eta ez kapitalaren jabetzari.
- **Kooperatibako kide guztiek beren ordezkaritza eta gobernu organoen aukeraketan eta sozietatean duten destinoa zehaztean parte hartzen dute,** bazkide bakoitzak boto bat emateko aukera izanda, kolektibitate bezala erregimen sozietarioan zein enpresa kudeaketan erantzunkidetasunez jardutea ahalbidetu eta erraztuko duen eredu demokratiko bat aldarrikatuz.

Printzipio kooperatibo horiek portaera jarraibideak ematen dizkiete erakundeko pertsonei, kooperatibaren balioak praktikan jartzeko. Proiektu partekatua eraikitzen duten pertsonak.

Kooperatibako gobernu organoak eta horien eginkizunak betetzea benetan demokratikoak izan daitezen, bazkideek haien aukeraketan parte har dezatela eta organoetako kide izan daitezela bultzatuko da, bai eta parte hartzea eta lanaren subiranotasuna bultzatzen duen sistema bati berez dagozkion komunikazioak egiteko eta erabakiak hartzeko sarean aktiboki parte hartu dezatela ere.

Kooperatibaren izaera demokratikoak, gainera, autogestioa apurka-apurka garatzea dakar eta, ondorioz, bazkideek enpresa kudeaketaren arloan gero eta gehiago parte hartzea ere badakar, parte hartzeko hilero dauden mekanismoen eta bideen bitartez eta Kooperatibaren kudeaketako oinarrizko aldagaien bilakaerari buruzko informazio ematean gardenak izanez.

### <u>Gobernantza kooperatiboko sistema</u>

(GRI 207- 2)

Jarraian, gobernantza kooperatiboko sistema osatzen duten Mondragon Assemblyko organo nagusiak aurkezten dira.




**BATZAR NAGUSIA**

Bazkideek eratutako organo soziala, **beren eskumeneko gaien gainean eztabaidatu eta erabakiak hartzeko**, esaterako, hauek: gestio soziala aztertu eta zentsuratzea, kontuak eta balantzea onartzea, soberakinen banaketa adostea eta Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzeko irizpideak ezartzea, besteak beste.

**KONTSEILU ERREKTOREA**

**Kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza** esklusiboki dagokion kide anitzeko organoa. Legeak edo Estatutuek berariaz Batzar Nagusiaren esku edo beste organo sozial batzuen esku uzten ez dituzten ahalmen guztiak ere baliatuko ditu. Kontseilu Errektorea arduratzen da, besteak beste, gerentzia izendatzeaz eta, hark proposatuta, sailetako zuzendaritzak izendatzeaz eta horien ahalmenak, betebeharrak eta ordainsariak finkatzeaz.

**LEHENDAKARITZA**

Lehendakaria da bazkideen kolektiboak (edo Kontseilu Errektoreak, bazkideek haren esku utzita) **kooperatibaren proiektu sozioenpresariala ordezkatzeko eta gidatzeko** aukeratutako pertsona. Batzarra eta Kontseilu Errektorea presiditu beharko ditu, eta bere zereginaren bidez Kontseilu Errektorearen eta Gerentziaren zein Kontseilu Sozialaren arteko harremana irudikatzen duen pertsona da. Era berean, Arrasateko gainerako organoekiko harremana irudikatzen du, eta hirugarrenen aurrean ordezkaritza instituzionala ere bada.

**ZUZENDARITZA**

**Kooperatibaren exekutibo gorena** da **enpresa funtzioekin zerikusia duen guztian, eta Kontseilu Errektorearen ikuskaritzapean jarduten du.** Kudeaketa autonomiarik handiena izango du, eta bere eskumen eremuan hartzen dituen erabaki guztiak nahitaez bete beharrekoak izango dira kooperatibako bazkide eta langileentzat.

**ZUZENDARITZA KONTSEILUA**

**Gerentearen lantaldea** da, **eta haren zuzendaritzapean jarduten du, enpresa funtzioekin zerikusia duen guztia oso arduratsu bere gain hartuta.** Bere eskumen eremuan hartutako erabakiak nahitaez bete beharrekoak izango dira Kooperatibako bazkide eta langileentzat.

**KONTSEILU SOZIALA**

**Bazkideek etengabe parte hartzeko duten organoa** da, **eta haien ordezkari gisa jarduten du Kooperatibaren barruko instantzietan.** Organikoki, Kontseilu Errektore eta Gerentziaren aholkularitza eta kontsulta organoa izango da. Informazioa, aholkularitza eta kontsulta dira Kontseilu Sozialaren oinarrizko eginkizunak.

**ZAINTZA BATZORDEA**

Kooperatibaren urteko kontuak eta liburuak berrikusteko eta gainbegiratzeko ahalmenak dituen organoa. Organoak, halaber, Compliance Batzordean parte hartzen du, bere interesekotzat jotzen duen edozein gai berrikusteko eta horren gainean kontsultatzeko ahalmena izanik.

**Rolen dinamikan eta konfiantzazko harremanetan oinarritutako sistema**




## Jarraian, gobernu organoen aniztasuna zehazten da:

(GRI 405- 1)

| Gobernantza kooperatiboko egitura | SEXUA | ADINA | DATUA |
|---|---|---|---|
| ZAINTZA BATZORDEA | EMAKUMEAK | < 30 | 0 |
| | | 31 - 50 | 0 |
| | | >51 | 1 |
| | GIZONAK | < 30 | 0 |
| | | 31 - 50 | 1 |
| | | >51 | 1 |
| KONTSEILU ERREKTOREA | EMAKUMEAK | < 30 | 0 |
| | | 31 - 50 | 2 |
| | | >51 | 0 |
| | GIZONAK | < 30 | 0 |
| | | 31 - 50 | 5 |
| | | >51 | 0 |
| KONTSEILU SOZIALA | EMAKUMEAK | < 30 | 0 |
| | | 31 - 50 | 0 |
| | | >51 | 0 |
| | GIZONAK | < 30 | 0 |
| | | 31 - 50 | 5 |
| | | >51 | 1 |
| ZUZENDARITZA BATZORDEA | EMAKUMEAK | < 30 | 0 |
| | | 31 - 50 | 0 |
| | | >51 | 2 |
| | GIZONAK | < 30 | 0 |
| | | 31 - 50 | 3 |
| | | >51 | 2 |

## 4.2.- Jokabide kodea

(GRI 2- 23)

Mondragon Assemblyren jokabide kodea Kontseilu Errektoreak berritu du 2022ko otsailean.

Taldeko langileek beren interes talde guztiekin dauzkaten harremanetan eta kooperatibak jarduera eremu dituen herrialdeetan indarrean dagoen legeria eta araudia zorrotz betetzeko jarraitu behar dituzten jokabide arauak ezartzea du helburu. Legea eta araudia argi ez dauden edo hain zorrotzak ez diren lekuetan, Jokabide kode hau izango da bete beharreko erreferentziazko araua.

Taldeko enpresetako bazkide guztiei aplikatu behar zaizkie, bai eta Taldeko enpresa batzuentzat edo haien izenean lan egiten duten eta beste erakunde edo profesional autonomo batzuen bidez zuzenean kontratatuta dauden pertsona guztiei ere.

Jakitera ematen da gizartea oro har jakinean egon dadin, eta saiatuko da Mondragon Assemblyrekin interakzio gehien duten lehentasunezko interes taldeek, hala nola hornitzaile, bezero eta auditoreek ezagutu dezaten eta bere egin dezaten.

### Jokabide eta ‘compliance’ penaleko batzordea

(GRI 205- 2)

Jokabide kode hau, zehazki, eta "compliance" penalari dagokion guztia ere betetzen dela zaintzeko, **Jokabide eta ‘compliance’ penaleko batzorde** bat sortu du Kontseilu Errektoreak. Batzorde hori honako hauek osatzen dute: Zaintza Batzordeko kideek, Kontseilu Errektoreko kide batek eta beste pertsona batek, jokabidearen eta compliancearen arduradun gisa. Hirugarren pertsona hori Batzorde honen koordinatzailea eta kide iraunkorra izango da.

Batzorde hau da "**compliance-a" kudeatzearen ondoriozko betebeharrak gainbegiratu, zaindu eta kontrolatzen dela bermatzen duen organo nagusia,** eta akreditatuta dago erakundeko gainerako organoei erabateko laguntza eskatzeko eta jasotzeko. Kontseilu Errektorera zuzenean eta berehala jo dezake, baldin eta egitate edo jokabide susmagarriak edo bere zereginarekin zerikusia duten beste gai batzuk jakinarazi behar baditu.

Hauek dira Batzordearen erantzukizun nagusiak:

- **”Delituak eta arrisku penalak prebenitzeko kudeaketa sistema” gainbegiratzea** (“compliance”), honetarako:
  - Sistemaren ezarpena eta eraginkortasuna bultzatzeko eta gainbegiratzeko;
  - erakundeko kideei prestakuntza emateko;
  - sistemaren erantzukizunak lanpostuen deskribapenetan eta erakundeko kideen jardunaren kudeaketa prozesuetan sartzea bultzatzeko;
  - erakundean eragina izan dezaketen lege, gizarte, lan eta ingurumen arriskuak (penalak) identifikatzeko, negozioko bazkideekin lotutakoak barne, horiek ebaluatzeko eta horiek saihesteko edo gertatzeko probabilitatea murrizteko ekintzak egiteko.
- **Zuzendaritza Kontseiluari eta Kontseilu Errektoreari** iradokizunak, ekimenak eta hobetzeko proposamenak jakinaraztea.
- **"Jokabide Kodea"** eta "compliance"-ari buruzko guztia **zabaltzea eta behar bezala komunikatzea**.
- Jokabide kodearekin eta "compliance"-arekin zerikusia duen guztiaren interpretazioari buruzko **kontsultei eta zalantzei erantzutea.**
- **Jasotako komunikazioak eta salaketak ikertzea**, egoera susmagarriak ikertzea eta Kontseilu Errektoreari (gobernu organoa) dagokion irizpena ematea, ekintza proposamenarekin batera. Kudeaketa hau salaketen aurrean jarduteko protokoloan oinarrituta egiten da.
- **Urtero berrikustea zenbateraino betetzen den** “Compliance”-aren kudeaketa eta kudeaketa horretan sartzen dena, eta, kasua bada, eguneratzeak egitea.
- **Jardunaren adierazleak ezartzea** eta jarduna neurtzea, “compliance”-a kudeatzeko.
- ”Compliance”-aren kudeaketa aplikatzearen ondorio diren emaitzen **berri ematea urtero** Zuzendaritza Kontseiluari (goi zuzendaritza) eta Kontseilu Errektoreari (gobernu organoa).

Batzordea hiru hilean behin elkartuko da gutxienez, eta egoerak hala eskatzen duen guztietan. 2022an hiru bilera egin ziren Mondragon Assembly S.Coop.en, eta laugarrena 2023ko urtarrilerako utzi zen. 2022an batzorde horretako kideak eguneratu dira, maiatzeko Batzar Nagusian Zaintza Batzordean aldaketak egitea erabaki zelako.

## 4.3.- Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka

(GRI 2-24, 2-25, 2-26, 3-3 c, 205-1)

Mondragon Assemblyk hainbat mekanismo ditu aurrekoa bermatzeko, eta **ustelkeriaren aurkako politika** bat du. Politika horren helburua da iruzurrezko ekintzak prebenitzeko, detektatzeko eta zigortzeko beharrezkoak diren neurriak zehaztea. Bazkide langile guztiei eta Mondragon Assembly-rentzat edo bere izenean kontratuarekin lan egiten duen beste edozein pertsonari aplikatu beharrekoa da.

*"Mondragon Assemblyko pertsonek ez dute, inondik inora ere, ekintza ez-etikorik egingo hirugarrenei xantaia, eroskeria edo mehatxuen bidez presio egiteko, Mondragon Assemblyren, beren buruaren edo beste pertsona edo erakunde batzuen aldeko erabakiak har ditzaten."*

*"Era berean, Mondragon Assemblyko pertsonek ez dute onartuko inork presio egitea erakundeari kalte edota hirugarrenei mesede egingo dieten erabakiak har ditzaten."*

Aldi berean, Mondragon Assemly Aretxabaletak **"Compliance" Penalaren Kudeaketa Sistemaren ziurtagiria** du **2018tik**.

"Compliance" Penalaren kudeaketaren bidez, Mondragon Assemblyk bere jardueren ondorioz eta bera osatzen duten pertsonen jardueren ondorioz erakundeak izan ditzakeen arrisku penalak identifikatzeko, ebaluatzeko eta erregistratzeko erabiltzen duen metodologia deskribatzen da, arrisku horietako bakoitza gertatzeko probabilitatea zehazteko eta, gertatuz gero, detektatzeko gaitasuna eta larritasuna erabakitzeko.

Dauden prozeduren bidez, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoan jasotako delitu potentzial guztiak identifikatzen eta ebaluatzen dira, bai eta legearen geroagoko eguneratzeetan jasoko direnak ere.

Kudeaketa horretarako, Mondragon Assemblyk bi kontrol mekanismo nagusi ditu:

Alde batetik, **bezero eta hornitzaile garrantzitsuetan behar den arreta sistematikoki berrikustea Zuzendaritza Batzordearen bidez.** Zentzu horretan, Zuzendaritza Kontseiluaren barruan proiektuei behar adina arreta egin zaizkie.

2022an, akordioa/kontratua sinatu aurretik, Mondragon Assemblyko Zuzendaritza Batzordean identifikatutako bezero eta hornitzaileen Behar Adinako Arretaren 22 ikerketa egin ziren.

Bestalde, "Compliance" Penaleko Batzordeak urtero berrikusten du arrisku penalen ebaluazioa eta Mondragon Assembly S,Coop.ek egiten dituen delituena. 2022an formatuak prestatu dira auditoretza hau compliance bileretan txertatu ahal izateko, urtean zehar dauden kontrol guztien auditoretza espezifikoak egin ahal izateko.

2022an, gainera, Giza Baliabideen eta Gestio Sistemen talde batzordean jakinarazi da bezeroarekin lotutako industria konfidentzialtasunaz eta «compliance» penalaz kontzientziatzen jarraitu behar direla pertsona guztiak. Aurrera egin zen, halaber, filial guztietan delitu penalak egiteko arrisku berezia duten pertsonek compliance penaleko politikak berriz sinatzeko.

Bestalde, 2022an Mondragon Assemblyren Aretxabaletako lantegiko bederatzi pertsonak jaso zuten compliance politikei eta ustelkeriaren aurkako prozedurei buruzko formazioa, eta horien artean nabarmentzekoak dira bi zuzendari, hiru komertzial eta 2022an berritutako compliance penaleko batzordeko kideak. Guztira zortzi orduko prestakuntza eman da Compliance penalaren arloan.

## 4.4.- Giza eskubideekiko konpromisoa

(GRI 3-3 c., 2-23 b.)

*"Mondragon Assemblyk nazioartean aitortutako giza eskubide guztiak errespetatzen ditu, bereziki bere jarduerarako eta interes taldeetarako garrantzitsuak direnak."*

Mondragon Assembly **MONDRAGON Korporazioaren** parte da, lankidetzazko lanaren munduko erreferentzia eta Euskal Herriko lehen enpresa taldea eta Espainiako hamargarrena den erakundearen parte, alegia. MONDRAGON Korporazioaren balio korporatiboek gidatzen dute bere filosofia, eta hauek dira **balio korporatibo** horiek:

- **lankidetza,**
- **kudeaketan parte hartzea,**
- **erantzukizun soziala,**
- **berrikuntza,**
- **antolaketa demokratikoa,**
- **hezkuntza eta**
- **eraldaketa soziala**

Filosofia orokor bezala, honako hauek hartzen dira Erakundearen eskakizun kooperatibo espezifikotzat:

- Ingurune ekonomiko eta sozialaren ezaugarri eta beharretara egokitzea, eta ingurune horretan oreka humanoa eta profesionala bilatzea.
- Bazkide langileen duintasuna eta asmoak errespetatzea.
- Lan baldintzak etengabe hobetzea eta langilearen gaitasun profesionaletara egokitzea, norbere lana garatuz eta zereginak aberastuz hobera egiteko eta profesionalki birmoldatzeko etengabe saiatzea sustatzeari utzi gabe.
- Bazkideek erabakiak hartzen parte hartzea erraztuko duten kudeaketa eta zuzendaritza ereduak garatzea.
- Bazkideen eta horien ordezkarien informazioa eta esku hartzea antolaketa aldaketen definizioan eta kontrolean.
- Bazkide langileek enpresa eraginkortasunetik eratorritako eskakizunak onartzea, bere gain hartuta esleitzen zaizkien betebehar eta erantzukizun profesionalak, dagozkien helburu indibidualak eta kolektiboak, emaitzen kontrola, norbanakoen eta enpresako taldeen esfortzuak koordinatzetik eratorritako baldintzak eta plantillak maila egokian ezartzearen ondorioak, bazkide langileen erabateko okupazioari dagokionez, haien asmoen ikuspegitik.
- Bazkideen laguntza lan prozedurak eta metodoak hobetzeko eta produktibitatea lortzeko, horien ezarpena eta ondorengo hobekuntza erakundearen borondate sozialaren funtsezko zatia izanik.

(GRI 2-23 a., 2-24, 2-25)

Esparru horretan, **Taldeko jokabide kodea** da pertsona guztiek maila profesional guztietan sustatu beharreko balioak zehazten dituen gida, Taldeari lotutako pertsona guztien arteko harremanak balio horietan oinarritu behar baitira, errespetuzko lan giroa eta lan giro positiboa ahalbidetzeko:

- Proaktibitatea eta lidergoa
- Berrikuntza
- Pertsonen garapena
- Talde lana
- Bikaintasuna
- Bezeroarenganako hurbiltasuna

Jokabide kode horretan, Mondragon Assemblyk konpromisoa adierazten du estatuko eta nazioarteko legerian jasotzen diren giza eskubideak betetzeko, eta bere gain hartzen du hainbat adierazpen eta ekimen betetzea, esaterako, hauek: Giza Eskubideen Adierazpenaren Oinarrizko Printzipioak (NBE, 1948), Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioak, eta erantzukizunaren, elkartasunaren, askatasunaren, demokraziaren eta justiziaren filosofia bera jarraitzen duten beste batzuk, hala nola ELGAk enpresa multinazionalentzat emandako jarraibideak, Hiruko Adierazpena eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Gizarte Politika.

Horrez gain, Mondragon Assemblyk konpromisoa hartzen du indarrean dagoen legeria zorrotz betetzeko (eta, ahal den neurrian, hobetzeko), honako hauei dagokienez:

- Lan kontratuak (soldata, ordutegia, egutegia, asegurua...)
- Lan baldintzak (ingurune osasungarria, garbia eta segurua…)
- Haurren lana edota lan behartua edo nahitaezkoa gaitzestea
- Diskriminaziorik eza eta aukera berdintasuna
- Jazarpena (jazarpenari aurre egiteko politika bat dago)
- Intimitaterako eskubidea (DBLO) (pribatutasun eta konfidentzialtasun politika bat dauka)
- Elkartzeko eta negoziazio kolektiborako eskubidea errespetatzea

- Gutxiengo etnikoen eta Taldeak lanean diharduen herrien eskubideak errespetatzea

Gainera, Mondragon Assembly adi dago bere hornitzaileek berma dezaten giza eskubideak eta langile guztien eskubideak beteko dituztela, haurrik esplotatuko ez dutela, lan beharturik ez dutela izango eta laneko osasuna eta segurtasuna babestuko dituztela.

Jokabide kode horrek ez-betetzeak jakinarazteko barne eta kanpo bideak ezartzen ditu. Horrela, norbaitek delituren bat egin izanaren edo Jokabide kodean eta erantzukizun sozialari buruzko politiketan jasotako printzipio eta balioren bat urratu izanaren zantzuak edo susmoa izango balu, zuzenean jakinarazi beharko lioke Jokabide eta "compliance" penaleko batzordeko edozein kideri. Batzorde honek komunikazioa egiten duen pertsonaren konfidentzialtasuna bermatzen du.

Mondragon Assembly S.Coop.ek, bere "compliance" penalaren ziurtagiriaren esparruan, bere jarduerararen ondorioz aurre egin beharreko arrisku penalak baloratzen ditu. Arriskuak ebaluatzeko matrize honetan hainbat kontrol ezarri dira **giza eskubideak urratzeko arrisku penalak** saihesten saiatzeko, kontrol neurri hauen bidez:

- Araudi aldaketei buruz LKSk eta ENVIRAk ateratzen dituzten buletinen kontsulta.
- Erakundeak formazio sistema bat dauka pertsona lanpostura egokitzen dela ziurtatzeko.
- Giza Baliabideetako langileek beren lanpostuaren berariazko prestakuntza dute, eta aldian-aldian legea eta giza eskubideak betetzeari buruzko prestakuntza eguneratzen dute.
- Pertsonen zuzendariak kontratu guztiak berrikusi eta sinatzen ditu.
- AENORen arauzko kanpo auditoriak egiten dira (ISO-9001, ISO-45001, SR-10 eta UNE-19601)
- Harrera Planean, langileak bere datu pertsonalak babesteko duen eskubidearen aipamen bat sartu da.
- Hornitzaile homologatuen zerrenda, horiek ebaluatzeko prozedurarekin.
- Hirugarrenei zor zaien arreta, delitu penal posibleak kontrolatzeko.
- Delitu penalak egiteko arrisku berezian dauden langileak identifikatzea (horiek kontrolatzeko eta prestatzeko prozedura espezifiko batekin).
- Hainbat filialetan giza eskubideen inguruan egon daitezkeen arriskuak salatzeko dauden batzordeak.
- Gatazkei eta/edo jazarpenei aurre egiteko jarduera protokoloa.
- Salaketei aurre egiteko jarduera protokoloa.
- Interes talde guztiei irekitako salaketa kanala.

Kontrol horiek urtero berrikusten dira, eta 2022an ez da jaso urraketarik horren inguruan.

Mondragon Assembly S.Coop.en Aretxabaletako lantegiak Erantzukizun Sozial Korporatiboaren ziurtagiria dauka. Ziurtagiri horren esparruan, **giza eskubideen, intimitatearen eta pertsonen konfidentzialtasunaren errespetuari** buruz dauden legeak hartzen dira kontuan, eta, horregatik, "compliance" ziurtagiriarekin batera, gai horiek erakundearen barruan ebaluatzen dira.

Filialei dagokienez, 2022an, hainbat ekintza egin dira filialetan 2021ean egindako **erakunde kulturari** buruzko inkestaren emaitzak jaso ondoren.

Filial bakoitzak, modu autonomoan, herrialde bakoitzeko langileen estatutuak eta legeak legez agindu bezala betetzen diren aztertzen du.

2022an, ez da giza eskubideen arloko diskriminazio kasurik antzeman.

(GRI 406- 1)

Filial bakoitzak modu autonomoan erosten du, proiektuaren zehaztapenen arabera, eta, ondorioz, Giza Eskubideen arloko legeria beste batzuetan bezain garatua ez duten herrialdeetan erosteko beharra ikusten da. Horregatik, Arrisku Penalen ebaluazioaren barruan, Mondragon Assembly Aretxabaletak identifikatuta dauka gure hornitzaileen jokabide-kodean ezarritakoa betetzen ez duten hornitzaileei erosketak egiteko arriskua. Horrelako egoerak identifikatu ahal izateko, talde mailan jarduteko bi bide ditugu. Alde batetik, **erakundearen salaketa-kanala,** barneko langileek zein kanpokoek erabil dezaketena. Hornitzaileak kontratua betetzen ez duela salatuz gero, "Compliance penal"-eko Batzordeak aztertu egingo du, eta talde mailan nola jokatu behar duen zehaztuko du. Zuzendaritza Batzordeari eta Zuzendaritza Kontseiluari egoeraren berri emango die.

Bestalde, hornitzaileei "Debida Diligencia" analisia egiten zaie, giza eskubideen aurkako delituak izan ditzaketen susmoa dagoen hornitzaileei Zuzendaritza Batzordetik; besteak beste, nahitaezko lanak eta haur-lana. Arriskutsutzat jotzen diren kasuak aztertzen ditu, taldean haiekin nola jokatu erabakitzeko eta kontseilu errektoreari eta "Compliance penal"-eko batzordeari jakinaraziz.

(GRI 414- 3)

Erakundeak inbertsio garrantzitsuak ditu Quinhuangdao Visual Co Ltd. enpresan. Harekin sinatutako akordioen barruan, eta giza eskubideei buruzko berariazko klausularik ez dagoen arren, enpresa ebaluatzen ari gara prozesuen eta antolamenduaren arloan. 2022an enpresa kontuan hartu da kontabilitate finantzarioaren eta kontrol ekonomikoaren arloan, hau taldera integratzeko lehen urratsak emanez. COVID 19ak Txinan 2022an pandemia luzatu izanak, ez du erakundea erabat integratzea erraztu. Hori dela eta, 2023rako beste urrats bat eman nahi da, eta ekoizpen-prozesuen eta jasangarritasunaren arloan integratzen hasi. Horretarako, erakundea ebaluatuko da giza eskubideen, segurtasunaren, kalitatearen eta ingurumenaren arloan.

5

# BERE PERTSONAK ZAINTZEN DITUEN TALDEA GARA

## Mondragon Assemblyn pertsonak dira erdigunea.

(GRI 3-3C,2-23)

Pertsonak dira proiektu partekatuarekiko erantzunkidetasunez jardunda etorkizuna eraikitzen dutenak, belaunaldi berriei jaso dutena baino kooperatiba hobea uzteko konpromisoarekin.

*"Pertsonek beren onena eman dezaten, **Mondragon Assemblyk enpresa kultura aurreratua eraikitzen dihardu, talde lana sustatuko duen, aniztasuna kudeatzen jakingo duen, pertsonen osasuna zainduko duen eta lana eta familia uztartzea ahalbidetuko duen enpresa kultura izateko.**"*

## 5.1.- Elkartasuna oinarri

*"Pertsonak erabakigarriak dira Mondragon Assemblyren proiektu sozioenpresarialaren etorkizunean, beren sormen gaitasunagatik, beren ekimenagatik, beren konpromisoagatik eta beren erantzukizunagatik."*

Taldeko eredu korporatiboak pertsonen parte hartzea bultzatzen du, bai jabetzan, bai kudeaketan eta emaitzetan, partaidetza horren bidez pertsonak konprometitzea bilatuta, haien konpromisoa funtsezko balioa den heinean.

Mondragon Assemblyk, merkatuan 40 urte lanean daramatzan kooperatiba den heinean, bere sorreran du inplizituki erantzukizun sozial pixka bat:

- Kapitalaren gainetik lana lehenesten da,
- Irabaziak ez dira monetizatzen; jarduerarako erabiltzen dira.
- Aberastasuna solidarioki banatzen da.
- Pertsonek kudeaketan parte hartzea eta pertsonak kudeaketan integratzea sustatzen da.

## Gure pertsonak

Pertsonak dira Mondragon Assemblyren zutabe garrantzitsuenetako bat; pertsonak dira erronken eta desafioen aurrean erakundeari aurrera eginarazten dion motorra.

| Lantegiaren izena | Pertsona kopurua |
|---|---|
| Mondragon Assembly Aretxabaleta | 166 |
| Mondragon Assembly Kunshan | 66 |
| Mondragon Assembly GmbH | 57 |
| Mondragon Assembly France | 37 |
| Mondragon Assembly Queretaro | 135 |
| Mondragon Assembly USA | 2 |
| Mondragon Assembly Brazil | 46 |
| Mondragon Assembly Tunisia | 5 |
| Mondragon Assembly India | 4 |
| **GUZTIRA** | **518** |

## Enplegua

(GRI 2-7)

2021eko abenduaren 31n **nazionalitate desberdinetako 518 pertsonak** osatzen genuen Mondragon Assemblyko lantaldea, 81 emakume eta 437 gizon ginen.




| Enplegatutako pertsonak generoaren arabera | 2022 | 2021 | 2020 |
|---|---|---|---|
| Emakumeak | 81 | 78 | 63 |
| Emakumeen % | %16 | %16 | %18 |
| Gizonak | 437 | 408 | 293 |
| Gizonen % | %84 | %84 | %82 |
| **GUZTIRA** | **518** | **486** | **356** |

Hurrengo grafikoan ikus dezakegunez, pertsona-kopurua handituz joan da, baina balioak ez dira gehiegi aldatu kontratatutako emakumeen ehunekoari dagokionez; izan ere, 2022an 14 emakume sartu ziren, eta kontratatutako gizonen eta emakumeen ehunekoa mantendu egin zen, batez ere lanpostu teknikoetarako.




**Enplegatutako pertsona kopurua Herrialdeko, generoaren arabera**

| | 2022 | 2021 | 2020 |
|---|---|---|---|
| ESPAINIA | 166 | 147 | 151 |
| Emakumeak | 35 | 30 | 32 |
| Gizonak | 131 | 117 | 119 |
| TXINA | 66 | 77 | 79 |
| Emakumeak | 14 | 16 | 14 |
| Gizonak | 52 | 61 | 65 |
| ALEMANIA | 57 | 54 | 54 |
| Emakumeak | 6 | 6 | 6 |
| Gizonak | 51 | 48 | 48 |
| FRANTZIA | 37 | 35 | 36 |
| Emakumeak | 5 | 5 | 6 |
| Gizonak | 32 | 30 | 30 |
| MEXIKO | 135 | 115 | 0 |
| Emakumeak | 15 | 16 | 0 |
| Gizonak | 120 | 99 | 0 |
| ESTATU BATUAK | 2 | 1 | 0 |
| Emakumeak | 0 | 0 | 0 |
| Gizonak | 2 | 1 | 0 |
| BRASIL | 46 | 47 | 36 |
| Emakumeak | 6 | 5 | 5 |
| Gizonak | 40 | 42 | 31 |
| TUNISIA | 4 | 3 | 0 |
| Emakumeak | 0 | 0 | 0 |
| Gizonak | 4 | 3 | 0 |
| INDIA | 2 | 7 | 0 |
| Emakumeak | 0 | 0 | 0 |
| Gizonak | 2 | 7 | 0 |
| **GUZTIRA** | **518** | **486** | **356** |
| **Emakumeak** | **81** | **78** | **63** |
| **Gizonak** | **437** | **408** | **293** |

**Enplegatutako pertsona kopurua kategoria profesional bakoitzeko, adin taldeen arabera:**

| MOTA | GENEROA | ADINA | ZUZENDARI | ARDURADUN | TEKNIKARI | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| KONTRATU MUGAGABEA | EMAKUME | < 30 | 1 | 0 | 13 | 74 |
| | | 31 - 50 | 2 | 9 | 37 | |
| | | >51 | 2 | 0 | 10 | |
| | GIZON | < 30 | 2 | 7 | 70 | 369 |
| | | 31 - 50 | 14 | 38 | 192 | |
| | | >51 | 3 | 7 | 36 | |
| | GUZTIRA | | 24 | 61 | 358 | 443 |
| ALDI BATERAKO KONTRATUA | EMAKUME | < 30 | 0 | 0 | 7 | 7 |
| | | 31 - 50 | 0 | 0 | 0 | |
| | | >51 | 0 | 0 | 0 | |
| | GIZON | < 30 | 0 | 0 | 62 | 68 |
| | | 31 - 50 | 0 | 0 | 5 | |
| | | >51 | 0 | 0 | 1 | |
| | GUZTIRA | | 0 | 0 | 75 | 75 |

**Enplegatutako pertsona kopurua kategoria profesionaleko, sexuaren arabera:**

| | 2022 | % |
|---|---|---|
| ZUZENDARITZA | 24 | |
| Emakumeak | 5 | 21% |
| Gizonezkoak | 19 | 79% |
| ARDURADUNAK | 57 | |
| Emakumeak | 9 | 15% |
| Gizonezkoak | 52 | 85% |
| TEKNIKARIAK | 426 | |
| Emakumeak | 67 | 15% |
| Gizonezkoak | 366 | 85% |

# Kontratu modalitateak

2022an Mondragon Assemblyko plantillaren %86ak baino gehiagok kontratu mugagabe bat zuten kooperatibarekin, eta, aldi berean, langileen %95ek baino gehiagok lanaldi osoa zuten. Plantillaren kontratu modalitateen banaketa, eremu geografikoen arabera, honako hau zen:

**Enplegatutako pertsonen kopurua eta ehunekoa, kontratu motaren eta lanaldiaren arabera:**

| | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Kontratu mota | 518 | 486 |
| Mugagabea | 443 | 431 |
| Aldi-baterkoal | 75 | 55 |
| Lanaldi mota | 518 | 486 |
| Lanaldi osoa | 494 | 464 |
| Lanaldi murriztua | 24 | 22 |

**Enplegatutako pertsonen kopurua eta ehunekoa, lanaldi motaren, generoaren, adin tartearen eta lanbide kategoriaren arabera:**

| MOTA | GENEROA | ADINA | ZUZENDARI | ARDURADUN | TEKNIKARI | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| LANALDI OSOA | EMAKUME | < 30 | 0 | 0 | 20 | 69 |
| | | 31 - 50 | 2 | 8 | 31 | |
| | | >51 | 2 | 0 | 6 | |
| | GIZON | < 30 | 2 | 7 | 132 | 425 |
| | | 31 - 50 | 14 | 38 | 187 | |
| | | >51 | 2 | 8 | 35 | |
| | GUZTIRA | | 22 | 61 | 411 | 494 |
| LANALDI MURRIZTUA | EMAKUME | < 30 | 1 | 0 | 0 | 12 |
| | | 31 - 50 | 0 | 1 | 6 | |
| | | >51 | 0 | 0 | 4 | |
| | GIZON | < 30 | 0 | 0 | 0 | 12 |
| | | 31 - 50 | 0 | 0 | 10 | |
| | | >51 | 0 | 0 | 2 | |
| | GUZTIRA | | 1 | 1 | 22 | 24 |

| Kontratu modalitateen kopurua guztira eta banaketa eremu geografikoen arabera – 2022 | Mugagabea | Aldi baterakoa |
|---|---|---|
| ESPAINIA | 139 | 27 |
| Emakumeak | 31 | 4 |
| Gizonak | 108 | 23 |
| TXINA | 66 | 0 |
| Emakumeak | 14 | 0 |
| Gizonak | 52 | 0 |
| ALEMANIA | 57 | 0 |
| Emakumeak | 6 | 0 |
| Gizonak | 51 | 0 |
| FRANTZIA | 32 | 5 |
| Emakumeak | 5 | 0 |
| Gizonak | 27 | 5 |
| MEXIKO | 92 | 43 |
| Emakumeak | 12 | 3 |
| Gizonak | 80 | 40 |
| ESTATU BATUAK | 2 | 0 |
| Emakumeak | 0 | 0 |
| Gizonak | 2 | 0 |
| BRASIL | 46 | 0 |
| Emakumeak | 6 | 0 |
| Gizonak | 40 | 0 |
| TUNISIA | 4 | 0 |
| Emakumeak | 0 | 0 |
| Gizonak | 4 | 0 |
| INDIA | 5 | 0 |
| Emakumeak | 0 | 0 |
| Gizonak | 5 | 0 |

2022an, Mondragón Assemblyko 518 langileetatik 443k lan-kontratu mugagabea izan zuten, 74 emakumeak eta 369 gizonak. Aldi baterako 75 kontratuei dagokienez, 7 emakumezkoak izan ziren eta 68 gizonezkoak. Langile mugagabeetatik 139 kooperatibako bazkideak dira, hau da, Mondragon Assembly S.Coop. enpresako langileen % 83 bazkide kooperatibistak dira.

Era berean, 2022an 8 kaleratze izan ziren: 2 emakume eta 6 gizon, eta 47 borondatezko irteera.

**Altak eta bajak Herrialdeka eta genero arabera 2022an:**

| | ALTAK | BAJAK Kaleratzeak + borondatezko |
|---|---|---|
| ESPAINIA | 25 | 2 |
| Emakumeak | 3 | 0 |
| Gizonak | 22 | 2 |
| TXINA | 13 | 22 |
| Emakumeak | 1 | 4 |
| Gizonak | 12 | 18 |
| ALEMANIA | 0 | 0 |
| Emakumeak | 0 | 0 |
| Gizonak | 0 | 0 |
| FRANTZIA | 8 | 5 |
| Emakumeak | 1 | 1 |
| Gizonak | 7 | 4 |
| MEXIKO | 45 | 13 |
| Emakumeak | 3 | 2 |
| Gizonak | 42 | 11 |
| ESTATU BATUAK | 1 | 0 |
| Emakumeak | 0 | 0 |
| Gizonak | 1 | 0 |
| BRASIL | 19 | 13 |
| Emakumeak | 6 | 2 |
| Gizonak | 13 | 11 |
| TUNISIA | 1 | 0 |
| Emakumeak | 0 | 0 |
| Gizonak | 1 | 0 |
| INDIA | 0 | 2 |
| Emakumeak | 0 | 0 |
| Gizonak | 0 | 2 |

**Lanpostu, genero eta adinaren araberako irteera motak:**

| MOTA | GENEROA | ADINA | ZUZENDARI | ARDURADUN | TEKNIKARI | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| BORONDATEZKO IRTEERA | EMAKUME | < 30 | 0 | 0 | 5 | 7 |
| | | 31 - 50 | 0 | 0 | 2 | |
| | | >51 | 0 | 0 | 0 | |
| | GIZON | < 30 | 0 | 1 | 15 | 40 |
| | | 31 - 50 | 1 | 3 | 18 | |
| | | >51 | 1 | 0 | 1 | |
| | GUZTIRA | | 2 | 4 | 41 | 47 |
| KALERATZEA | EMAKUME | < 30 | 0 | 0 | 0 | 2 |
| | | 31 - 50 | 1 | 0 | 1 | |
| | | >51 | 0 | 0 | 0 | |
| | GIZON | < 30 | 0 | 0 | 3 | 6 |
| | | 31 - 50 | 0 | 0 | 1 | |
| | | >51 | 0 | 1 | 1 | |
| | GUZTIRA | | 1 | 1 | 6 | 8 |

## Ordainsarien elkartasuna

(GRI 2-19)

**Mondragon Assemblyren ordainsari sisteman ikusten da argien elkartasunaren aplikazioa praktikoa.** Sistema honek lanaren ordainsari nahikoa, bidezkoa eta solidarioa aldarrikatzen du pertsona guztientzat, kudeaketaren oinarrizko printzipio gisa, betiere Kooperatibaren benetako aukeren barruan.

Horrela, Kooperatibaren ordainsari politika Fagor Taldeko Printzipioen Deklarazioak markatuta dago, honako hau ezartzen baitu: “*Enpresa bat, non bere kideek ...bizitza pertsonal eta familiar duina lortu ahal izango duten, eta bizitza eta lan baldintza gero eta hobeagoak izango ahal dituzten, enpresaren eboluzioarekin eta benetako aukerekin bat etorriz. Enpresa bat, bere elkartasuna gainerako kooperatibei eta langile guztiei zuzenduko diena, kooperatibismoaren mugimendutik sortu baitzen eta kooperatibismoaren asmo sakonekin identifikatzen baita.*”

I. Kongresu Kooperatiboan formulatutako Oinarrizko Printzipioetan ere definituta dago ordainsari politika hori, Oinarrizko Printzipio horietan “Elkartasuna Ordainsarietan” aldarrikatzen da-eta.

**Arrasateko Esperientzia Kooperatiboak ordainsari nahikoa eta solidarioa ezartzen du bere kudeaketaren oinarrizko printzipio gisa**, honela adierazita:

**Nahikoa,** Kooperatibaren benetako aukerekin bat datorrena.

**Solidarioa**, zehazki honela:

- Barruan. Besteak beste, lanaren ordainsarietan tarte solidario bat egonda.
- Kanpoan. Irizpidea da barruan dagoen batez besteko ordainsaria inguruko gizartean soldatapeko langileek batez beste duten ordainsariaren baliokidea izatea, gizartean ordainsari politika eskasa dela nabarmena bada izan ezik.

Printzipio orokorren testuinguru hori plano operatibo hurbilenean aplikatuz, hauek dira Kooperatibaren ordainsari politikaren erakusgarri diren irizpideak:

- Bazkide langileari bere lanarengatik ordainduko zaio, berak eta bere familiak dituzten ohiko premiei behar bezala erantzun ahal diezaien.
- Ordainsari maila eguneratzeko, Kooperatibaren egoera eta bilakaera ekonomikoa eta ondarezkoa hartuko dira kontuan.
- Ordainsariak aldian-aldian egokituko dira inguruko langileen soldata mailarekin solidario izanda, horien ordainsari maila eskasa dela nabarmen denean izan ezik.
- Ustiategian emaitza negatiboak gertatuko balira eta aurreikusten den hurrengo bilakaerak kooperatibaren ohiko martxa eta garapena arriskuan jarriko balu, ordainsari maila egokituko da, behar besteko kopuruan eta behar besteko denboran, norbanakoaren eta komunitatearen premiei modu orekatuan erantzun ahal izateko moduan.

Gobernu organo gorenerako eta goi exekutiboetarako ordainsari politikek Kooperatibako gainerako lanpostuetarako aplikatutakoen antzeko jarraibideak betetzen dituzte. **Gobernu organo gorenarentzako zein goi exekutiboentzako ordainsariek Kooperatibako gainerako bazkide langileentzako ordainsariek dituzten osagai berdinak dituzte.**

*“Bazkide langile guztiak profesionalki sailkatzen dira, betetzen duten lanpostuaren arabera, eta, horretarako, balorazio sistema egokiak aplikatzen dira eta indize estrukturala izenez ezagutzen dena sortzen da.”*

Indizeaz gain, emaitzen eta Kooperatiban zehaztutako helburuen lorpenaren arabera, pertsona guztiek izango dute aukera ordainsari aldakor bat eskuratzeko, kontratu mota edozein dela ere.

**Goi Zuzendaritzarako Taldeko langile guztiei ez zaie ordainsari irizpide espezifikorik edo desberdinik aplikatzen.** 2022an Zuzendaritza Kontseiluko kideen batez besteko ordainsaria 91.629,43 eurokoa izan zen eta Kontseilu Errektoreko kideena, berriz, 46.169,71 eurokoa.

Gehieneko indizearen arteko ordainsari-aldea 3.81 bider minimoa da.

(GRI 405-2)

Oinarrizko soldataren eta ordainsariaren arteko ratioari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko aldeari begiratuta, 2022an Mondragon Assembly Aretxabaletan, ratioa %7 izan zen gizonezkoen alde, langile guztien IPC-aren soldata-igoerak eta zuzendaritza-batzordean berriki izandako aldaketek eragin dute aldaketa hau:

| Soldata arrakala sexuaren arabera | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Soldata gordina/h emakumeetan | 29,50 | 23,52 |
| Soldata gordina/h gizonetan | 31,27 | 21,53 |
| Ratioa | 0.,94 | 1,09 |

Ordainsaria zehazteko prozedurari dagokionez, Kooperatibako lanpostuak Fagor Taldeko Balorazio Batzordean baloratzen dira. Kooperatibetako teknikariek osatzen dute batzorde hori, eta balorazioaren arduradunak zuzentzen du, kide neutrala baita, izan ere, Fagor Taldekoa den arren ez dauka loturarik kooperatibetako batekin ere ez. **Batzorde horretan lanpostu guztiak aztertzen eta baloratzen dira, barne ekitatea zein kanpo lehiakortasuna kontuan hartuta.**

Balorazio horretarako, batzordeak merkatu txostenak ditu, eta kooperatiba bakoitzaren egungo egoerari buruzkoak, eta kanpo aholkularietara jo dezake aholkularitza bila.

Filialek ere merkatu txostenak erabiltzen dituzte edota kanpo aholkulariengana jotzen dute laguntza bila, beren erreferentziazko merkatuan aplika daitezkeen ordainsari tarteei buruzko informazioa izateko.

## Bazkideentzako babes sozialeko sistema

Mondragon Assemblyko bazkide langileek **erretiroagatiko prestazio bikoitza dute**, autonomoen erregimenean erregimen orokorretik datorrena (RETA) eta LagunArok, gizarte aurreikuspeneko erakunde gisa, ematen duena. Prestazio horiek kotizazio bikoitz batetik datoz, non hornidura aurrerakina lan kostuaren %31,5 den. LagunAro borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundea da, kooperatibak bazkide dituena eta bazkideei babes sozialeko zerbitzuak ematea helburu duena.

Gainera, **bazkide langileek, Kooperatiban metatutako kapitalaren bidez, kapitalizatutako itzulkin kooperatiboetatik eratorritako pentsio plan indibiduala dute** (Pentsio Plan Indibiduala). Urtero, Mondragon Assemblyk bere emaitza erabilgarriaren ehuneko bat banatzen du bere lan bazkideen artean, itzulkin kooperatibo gisa edo mozkinetako partaidetza gisa, zeina kapitalizatu eta bazkide bakoitzak duen kapital sozialeko kuotan gehitzen den, betiere kooperatibaren urteko emaitzak positiboak badira. Bestela, bazkideak bere kapitalarekin lagundu ahal izango luke. Kapital sozialeko partaidetza honetarako ezinbestekoa da lan bazkideak erakundean jardunean egotea; beraz, erakundean jarduteari uzten dion arte iraungo du. Egia esanda, pentsio plan indibidual bat da, erakundean egindako lan bizitza osoan etengabe hazi ondoren.

Horrez gain, Kooperatibak **Arogestion izeneko erretirorako aurrezki plana** du, bazkideek erretiroa aldez aurretik eskatu ahal izateko sortua, langile berrien enplegagarritasuna hobetzeko. Gainera, Enpresak urtero aurre-erretiroko funts erabilgarriak aztertzen ditu bazkide beteranoenei aurre-erretiroa eskaintzeko, eta Kontseilu Errektoreak onartu behar du eskaintza hori.

Onura sozialei dagokienez, lanaldi osoko langileek eta lanaldi partzialeko edo aldi baterako langileek ere berdin-berdin gozatu ditzakete onura horiez.

Horrela, Mondragon Assemblyk bere gain hartzen du, bere lan bazkideen onurarako, Gizarte Segurantza Publikoaren sistemaren osagarri gisa MONDRAGON Korporazioaren parte diren bazkideentzat duen osasun laguntzako sistema integralaren urteko finantzaketarako ordaindu behar diren kuoten parte bat ordaintzea.

## Lanaren antolaketa

Lan antolamenduak enpresa bati izaera ematen dio, eta enpresa definitzen du; gauza bera gertatzen da enpresa kooperatiba denean. Horren arabera, **lan antolamenduaren gaineko politika orokorrak kooperatibaren eraginkortasuna eta errentagarritasuna bilatzen du, hargatik eragotzi gabe bazkideek edo haien ordezkariek beraiei eragiten dieten erabakietan behar bezala parte hartzea eta haiek pertsonak eta profesionalak diren heinean dituzten interesak errespetatzea, lanak bazkide langileen garapen integrala ahalbidetzeko, oro har, eta sozietatea parte hartzea, bereziki.**

Jokabide Kodeak ezartzen duen bezala, Taldeko langile guztiak herrialde bakoitzean indarrean dagoen legeriaren arabera kontratatzen dira, langileen lanaldia edo lan egutegia ezartzeko lege mugak errespetatuz edo hobetuz.

Lanaldiari dagozkion alderdi bereziak, hala nola asteko ordutegia eta iraupena, etenaldi

modalitateak eta haien kontsiderazioa, derrigorrezko lekualdatzeetan joan-etorrietako denborari ematen zaion tratamendua, eta beste alderdi batzuk, agian araudi espezifiko batean jasoko dira, eta araudi hori Fagor Taldeko Batzar Nagusiak onartu beharko du, Kontseilu Orokorrak proposatuta.

Egungo araudiaren arabera, ekitaldiko lanaldiak eta oporraldiak definitzen dira. Laneko deskonexioa lortze aldera, langile batzuk (erretenak) izendatzen dira oporraldietan sor daitezkeen beharrei erantzuna emateko. Horri esker gainerako pertsonek lanetik deskonektatu daitezke denboraldi horietan.

**Mondragon Assembly Aretxabaletan eguneko lanaldia 8 ordukoa da**, eta, horrekin, urteko egutegia 1.697 ordukoa da. Ordutegia lanaldi malgukoa da, hau da, 07:30 eta 09:30 bitartean sartuko da, 12:30 eta 14:30 bitartean bazkaltzera irtengo (gutxienez 30 minutu eta gehienez 120 minutu dira bazkaltzeko), eta arratsaldean eguneko 8 orduak egiteko falta dena egindakoan bukatuko da, baina gutxienez 16:15ak arte egon beharko da lanean, lanaldi jarraituko egunetan eta nagusi zein haurren zaintza duten kasuetan izan ezik. Hala ere, egoerak hala eskatzen duenean, kooperatibako bazkideek beren gain hartuko dituzte aldi berean bazkide eta langile izateagatik dituzten betebeharrei erantzuteko ardurak.

Gainerako filialetan egutegi eta lanaldiei buruzko tokiko araudiak aplikatzen dira, eta, egoitzarekin koherentzian, kontziliazioa eta ordutegi malgutasuna sustatzen duten neurriak aplikatzen dira.

**Absentismoa produkzio herrialde, genero arabera.**

| | Generoa | Tasa |
|---|---|---|
| ESPAINIA | Emakumeak | 0.35 |
| | Gizonak | 3.5 |
| TXINA | Emakumeak | 0 |
| | Gizonak | 0 |
| ALEMANIA | Emakumeak | 0.05 |
| | Gizonak | 0.98 |
| FRANTZIA | Emakumeak | 1.13 |
| | Gizonak | 4.25 |
| MEXIKO | Emakumeak | 0 |
| | Gizonak | 1 |
| BRASIL | Emakumeak | 0.27 |
| | Gizonak | 1 |

## Harreman soziolaboralak

*"Mondragon Assemblyko bazkideek legezko arauen eta estatututetako arauen eta kooperatibako organoek balioz hartutako erabakien arabera baliatzen dituzte beren eskubideak.* ***Bazkide ez diren pertsonen harreman soziolaboralen kudeaketa eremu geografiko bakoitzean indarrean dauden lan legedi eta arau esparruen arabera garatzen da."***

Jokabide Kodeak espliziṫuki adierazten du Mondragon Assemblyk errespetatzen duela kooperatibako kide diren pertsonek jarduera sozial eta publikoak egitea eta pertsona horiek lan arloko elkarteetan eta negoziazio kolektiboetan parte hartzeko duten askatasuna. Esparru horren pean, harreman soziolaboralen kudeaketari dagokionez, kooperatibetako bazkide langileen eta gainerako langileen izaera desberdina hartu behar da kontuan. Eta hori MONDRAGONek dituen Antolaketa Demokratikoaren eta Kudeaketan Parte Hartzearen printzipioetan oinarrituta.

(GRI 2-29)

**Kooperatiben Legea, Estatutu Sozialekin eta Barne Araudiarekin batera, Mondragon Assemblyko bazkideen kolektiboarentzako erreferentziazko tresna juridikoak dira, haien eskubideak eta betebeharrak arautzen baitituzte** (Euskadiko Kooperatiben Legearen 22. eta 23. artikuluak).

*"Lantegi bakoitzeko langileekin harremanetan egoteko eta haiekin hitz egiteko kanalak bat datoz eta koherenteak dira eremu edo eskualde bakoitzeko kulturarekin, araudiarekin eta legeriarekin."*

Horrela, beraz, langileen kontsulta eta parte hartzea Kooperatibako foro guztietan kudeatzen da, landu beharreko gaiaren arabera:

### KONTSEILU SOZIALA

Enpresako lehendakariak eta langileen beste 5 ordezkarik osatzen dute, eta gizarte erantzukizun korporatiboarekin eta langileen gai sozialekin lotutako gai guztiak kudeatzen dituen organoa da.

### LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN ETA INGURUMEN BATZORDEA

Batzorde honetan langileek hiru prebentzio ordezkari dituzte, langileen ordezkari lanetan. Batzordean, berriz, laneko arriskuen prebentzioarekin, langileen osasunarekin eta langileak kezkatzen dituzten ingurumen gaiekin zerikusia duten kontu guztiak baloratzen dira.

### JOKABIDE ETA "COMPLIANCE" PENALAREN BATZORDEA

Batzorde honetan langileek kontseilu errektoreko ordezkari bat eta zaintza batzordeko hiru ordezkari dituzte, kooperatibaren barruan delitu penalik egiten bada horiei buruzko kontsultan parte hartzeko. Delituak arintzeko eta delituen kontrol operazionalerako ezarritako bitartekoen gaineko kontsultei ere erantzuten zaie bertan. Gainera, bai langileek bai erakundetik kanpoko pertsonek posta helbide elektroniko bat dute web

orrian, edozein zalantza edo salaketa edukiz gero batzordeari idazteko, aztertu dezan.

Parte hartzeko bide horiez gain, edozein langilek edozein gairen berri eman dezake edo kontsultatu dezake Zuzendaritza Batzordeko eta/edo Kontseilu Errektoreko kideen bidez.

2022ean, Mondragon Assemblyko plantillaren %100 lan arau eta/edo hitzarmen kolektiboei edo antzekoei lotuta zegoen.

## 5.2.- Berdintasuna eta kontziliazioa

### Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen

(GRI 2-23, 2-24)

Aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza berariaz jasota daude Mondragon Assemblyren Jokabide Kodean.

Mondragon Assemblyk badaki zein garrantzitsua den emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasun eraginkorra. Horrela, beraz, agerian jarri da espiritu kooperatibistaren azpian apurka-apurka **beste arlo batzuetako neurriak sartuz joan direla, esaterako, berdintasunerako eta lan bizitza, bizitza pertsonala eta familiarra uztartzeko neurriak eta enplegua sustatzeko garrantzitsuak diren alderdien gaineko neurriak (lanaldiaren malgutasuna, prestakuntza edo lidergoaren garapena), ekitatean, errespetuan eta erantzukidetasunean oinarritutako harremanak ezartzeko oinarriak indartzeko.**

2019az geroztik, berdintasuna bultzatzeko hainbat jarduera egiten ari dira Erakundearen barruan, esaterako, hauek (GJH 5 genero berdintasuna):

- **Berdintasunaren aldeko kafe bat:** kafea hartzeko gunean antolatutako borondatezko bilera txikiak. Mondragon Assemblyko kolektibo osoarentzat ziren, eta haien helburua zen hainbat gai ikusaraztea, hala nola, soldata arrakala, karga mentala edo kontziliazio pertsonala eta laborala, eta gai horietako bizipenak elkarri ezagutaraztea.
- Erakundean urteak daramatzaten **emakumeen testigantzak,** eta emakumeek industriaren barruan egin duten aurrerabidea.
- **Emakume langilearen egunaren ospakizuna** talde mailan, bideo bat, taldeko enpresetako emakumeen eta gizonen lekuko morea partekatuz.
- **Berdintasunari buruzko irakurketak, artikuluak eta filmak** kolektibo osoari bidaltzea.
- Kolektibo osoari **sentsibilizazio** jakinarazpena bidaltzea, **Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean** (azaroak 25).

2022an, aurrera egin da Mondragon Assembly Aretxabaletako berdintasun-plana arauekin bat egiteko; 2023an analisi kuantitatiboa lortu eta sisteman integratutako berdintasun-plan baterantz aurrera egiten jarraitzea espero da.

Enpresa arloan emakumearen ordezkaritza orekatua bermatzeko helburuari dagokionez, Taldeko Goi Zuzendaritzak eta bere Kontseilu Errektoreak gero eta osaera orekatuagoa dute apurka-apurka, generoari dagokionez. **2022an, Goi Zuzendaritza eta kontseilu errektorea bi emakumek eta bost gizonek osatzen zuten.**

*"Mondragon Assemblyk **desberdintasun kulturalak eta herrialde bakoitzari aplikatu beharreko estandar desberdinak onartzen ditu**, bai eta lana eskuratzeko eta lanean gora egiteko aukera berdinak emateak duen garrantzia ere, eta une oro ziurtatzen du sexu, sexu orientazio, arraza, desgaitasun, gaixotasun, erlijio edo diskriminazio iturri izan daitekeen bestelako edozein arrazoirengatik diskriminazio egoerarik ez egotea. "*

(GRI 2-25)

Mondragon Assemblyk, bere Kudeaketa Sistema Integratuaren esparruan, **laneko gatazkei/jazarpenei aurre egiteko jarduera politika** bat dauka. Politika horrek ezartzen du lan eremuan gerta daitekeen edozein gatazka, jazarpen edo eraso psikologiko egoki tratatuko dela ziurtatuko duen sistematika:

- Erakundeko langile guztiei aplikatuko zaie berdin dela zein den haien kontratu lotura eta zer iraupen duen kontratu lotura horrek.
- Salatzailearen konfidentzialtasuna eta babesa bermatzen du, bai eta gertakariak behar bezala ikertuko direla ere.
- Mondragon Assemblyren web orrian dago argitaratuta, eta interes talde guztientzat dago eskuragarri.

Erakundeak ez du diskriminazio kasuagatik jakinarazpenik jaso txostenaren xede den aldian.

### Aniztasunaren kudeaketa

(GRI 405-1)

Mondragon Assemblyk diskriminazio mota guztien aurka duen politikan aintzat hartzen da, halaber, desgaitasunen bat duten pertsonen

gizarteratzea eta irisgarritasun unibertsala. Horrela, 2022an Mondragon Assemblyk desgaitasun bat aitortuta zuten hiru pertsonari eman zien enplegua; 2021an, berriz, Taldeak desgaitasuna zuen bi pertsona enplegatu zituen. Hiru gizonezko teknikari dira, bi Alemanian eta bat Frantzian (GJH 10 Desberdintasunen murrizketa).

Bai matrizean, bai lantegi bakoitzean, etengabe ari dira lanean arlo horretako lege baldintzak betetzeko. Zentzu horretan, 2022ean, desgaitasunen bat duten pertsonek Taldearen jardueran parte hartzea sustatzeko, lankidetza bideak berrikusi dira, eta Gureakekin kanpo lankidetzarako akordioak lortu dira dokumentuak digitalizatzeko eta artxibatzeko jarduetarako. Era berean, in-situ integratzeko alternatibak aztertu dira, baina oraingoz ez da lankidetza aukerarik egon.

## Kontziliazio erantzukidea

(GRI 401-3)

Lana bizitza pertsonalarekin eta familiakoarekin uztartzearen arloan, azpimarratzekoa da **Kooperatibako Barne Araudiak kontziliazio neurriak jasotzen dituela bazkideen familia premia larriei erantzuteko zailtasunak baimen espezifikoen bidez errazteko bide gisa.** Hauek dira neurri horiek:

- **Lanaldi Malgua.** Taldeko langile guztiak ordutegi malguaren sistemaz baliatu daitezke, hau da, bost eguneko lanaldia, astelehenetik ostiralera lan eginda eta ordutegi malgua edukita, bai sartzeko, bai irteteko.
- **Lanaldi murrizketa seme-alabak zaintzeagatik.** 2022an, hamasei pertsonak baliatu zuten neurri hori, 7 emakumek eta 9 gizonek.
- **Borondatezko eszedentziak** seme-alabak zaintzeko, gehienez ere hiru urtez. 2022an, bi pertsonak baliatu zuen neurri hori.
- **100 ordu negatibo ere metatu ahal izatea**, ondorio ekonomikorik gabe gai pertsonalengatik bada, baina ondoren errekuperatu egin beharko dira.
- **Eszedentzia negoziatuak.**2022an bi pertsonak disfrutatu zuten neurri hau.
- Barne akordioak, **kanpora ez irteteko,** aitatasuneko lehen sei hilabeteetan.
- **Ordutegi malgua**, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko kasu justifikatuetan

Horrez gain, 2022ean lanaldi malguak ezarri ziren, tarte batzuetan telelanean arituta, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko Erakundeak zehaztutako segurtasun neurriak betetzen zirela ziurtatzeko. Neurri hauek urtean zehar desagertzen joan ziren, normaltasun batera bueltatu arte.

Kontziliazio neurrien garapenean aurrera egiteko, 2022an helburu kualitatibo bat garatu zen, talde adierazgarri baten parte-hartzearekin, Mondragon Assemblyko langileentzat kontziliazioaren aplikazio esparrua lantzeko. 2023an ildo horretan lanean jarraituko da, eta familiako bateragarritasunaren arloko urrats hauek definituko dira (GJH 09: lan duina eta hazkunde ekonomikoa).

| Gurasotasun baimena | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| Guraso baimenerako eskubidea | 24 | 21 |
| Emakumeak | 5 | 3 |
| Gizonak | 19 | 18 |
| Guraso baimena baliatu dute | 24 | 21 |
| Emakumeak | 5 | 3 |
| Gizonak | 19 | 18 |

## 5.3.- Gure pertsonen garapena sustatzen dugu

(GRI 404-1, 404-2)

Eredu kooperatiboan, **prestakuntza integrala da pertsonek lanean eta enpresan dagozkien eskumenetan garatzeko duten tresna**.

Mondragon Assemblyn, giza baliabideen departamentuaren bidez kudeatzen da prestakuntza. Urtero planifikatzen da sailetan eta arloetan egin beharreko prestakuntza, prestakuntza planean jasota. Prestakuntza hori Zucchetti plataformaren bidez erregistratzen da, eta zenbateraino asebete duen ebaluatzen da. Planifikatutako prestakuntza horretaz gain, langileek edo beraien arduradunek hainbat prestakuntza jarduera eska ditzakete urtean zehar, giza baliabideetako sailarekin lankidetzan.

Horrez gain, Kooperatibak ikasketetan laguntzeko funts bat du, eta horren helburua da lan eremutik kanpo prestakuntza jasotzea erabakitzen duten langileei laguntza ekonomikoa eskaintzea.

*"Mondragon Assemblyk aukera ematen die enplegatuei barne zein kanpo ekintzetan parte hartzeko"*

**Harrera planak** dira Taldeak prestakuntzan inbertitzen egiten duen ahaleginaren zati bat.

Mondragon Assemblyrentzat oso garrantzitsua da pertsonek prestakuntza egokia jasotzea, bai Taldeko edozein enpresatan lan egiten hasten direnean, bai lanpostu aldaketaren bat gertatzen denean. Ematen den prestakuntzan, lanpostua behar bezala betetzearekin zerikusia duten alderdi guztiak sartzen dira, eta alderdi teknikoak ez ezik Prebentzio, Kalitate eta Ingurumen, Erantzukizun Sozial Korporatibo, larrialdietan jarduteko jarraibideak eta abar ere kontuan hartzen dira.

2022an, Mondragón Assemblyk **10.086 prestakuntza ordu eman zituen**. Langile bakoitzak, **batez beste, 20 orduko prestakuntza** izaten du.

**Formakuntza orduak, postuka, genero arabera**

| | ZUZENDARI | ARDURADUN | TEKNIKARI |
|---|---|---|---|
| EMAKUME | 204 | 327,5 | 1.210,5 |
| GIZON | 98 | 1.552,5 | 6694 |
| **GUZTIRA** | 302 | 1.880 | 7.904,5 |

2022an, Feedback sistema berria martxan ipini zen, bertan jasotzen da langile bakoitzak bere garapen plan indibiduala (PDI) osatu behar duela, 70 20 10 garapen ikuspegitik begiratuta. Sistema berri hori langile guztien gaitasunak hobetzera bideratuta dago, eta etengabeko hobekuntza programak sustatzea ere bilatzen du, zuzeneko arduradunekin elkarlanean eta lantaldearen laguntzarekin.

Emaitzak oso positiboak izan dira, eta, 2023an, feedback programa berriz jarriko da martxan, zenbait gomendiorekin, antolakundean errazago egiteko.

## 5.4.- Gure pertsonen osasuna kudeatzen dugu

Mondragon Assemblyk, bere lantegietan egindako jarduerek dakarten arriskuaz jabetuta, **pertsonen segurtasuna eta osasuna lehenesten ditu beti,** industria jardueraren garapena ingurumena babestearekin eta pertsonak babestearekin bateragarri eginda. Horrela, pertsonak laneko segurtasunarekin eta osasunarekin konprometituta egotea dakarren kultura bat garatu nahi du, eta, gainera, haien ongizatea lehenesten du, jardueraren garapen jasangarrirako funtsezko faktore gisa.

### Laneko osasun eta segurtasun kudeaketa sistema

*"Mondragon Assembly Aretxabaletak ISO 45001:2017 arauaren ziurtagiria dauka, eta aurretik OHSAS arauaren ziurtagiria izan zuen; beraz, ISO estandar horrek ezarritakoa betetzen duen kudeaketa egitura bat dauka."*

Ziurtagiriaren irismenak Aretxabaletako zentroari bakarrik eragiten dio, eta jarduteko modua Estatu mailako gainerako zentroentzat erreplikatua da, egoitzako langile guztiak Aretxabaletako irismenaren barruan sartzen dira, Markuleteko jarduera behin-behinekotzat hartzen baita. Hauek ere sartuta daude ziurtagiri horren irismenean:

- Bi instalazioetan dauden ikasleak,
- Bazkide laguntzaileak, eta
- Instalazioetara sartzen diren azpikontratetako langileak, enpresa jardueren koordinazioari dagokionez

Filialei dagokienez, dagozkien herrialdeetako laneko segurtasun eta osasun araudiak jarraitzen dituzte, eta araudi horietako batzuek beste batzuek baino sistema murriztaileagoa dute, herrialdearen arabera. 2022an Mexikoko lantegiko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistema indartu da, kontratatutako langile kopurua handitu egin delako.

Kudeaketa sistema integratuaren politikak hau ezarten du laneko osasun eta segurtasunari dagokionez:

- Mondragon Assemblyk modu prebentiboan lan egiten du langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea segurtatzeko, lan sistema eta instalazio seguruen bidez, eta modu programatuan egiten ditu arriskuen ikuskapenak eta ebaluazioak, baita egoerak hala gomendatzen duenean ere, arriskuak ezabatzeko eta murrizteko, laneko osasun eta segurtasun arlo horretan duten jarduna etengabe ziurtatzeko eta hobetzeko konpromiso sendoarekin, ekintzak eta helburuak definituz eta planifikatuz.
- Mondragon Assemblyk aktiboki zaintzen du bere langileen eta kolaboratzaileen osasuna, haien kontsulta eta parte hartzea ziurtatuz eta haiekin argi eta arin komunikatuz.
- Mondragon Assemblyk konpromisoa hartzen du laneko segurtasun eta osasunari buruzko lege baldintzak eta berak definitzen dituen bestelako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

## Arriskuen ebaluazioa

(GRI 403-2)

Aretxabaletako lan arriskuen prebentzioko goi teknikaria arduratzen da erakundearen barruan arriskuak identifikatzeaz, arriskuak ebaluatzeaz eta gertakariak ikertzeaz. Enpresaren barruko figura bat da, Unibertsitate Masterreko prestakuntzarekin, zeina prebentzio zerbitzu mankomunatuak homologatzen enpresa kooperatiboan lan arriskuen prebentzioaren kudeaketari dagozkion jarduerak egiteko.

Figura hori arduratzen da lan arriskuen ebaluazioa egiteaz, kontuan izan da instalazioetatik, egin beharreko lanek eta lanpostu bakoitzerako erabili beharreko makina-erremintek laneko segurtasun eta osasunaren, ergonomia eta psikosoziologia aplikatuaren eta higiene industrialaren arloan dakartzaten arriskuak.

Ebaluazioak bost urtean behin berrikusten dira, eta instalazioetan arrisku berri bat sartzen den bakoitzean edo lanpostu berri bat gehitzen den bakoitzean.

Langileek, enpresan sartzean, dagokien informazioa jasotzen dute, eta instalazioetan arrisku larri eta hurbila antzemanez gero zer egin behar duten adierazten zaie, baita jakinarazi ere kasu horretan jarduera gelditu ahal izango dutela, eta ondoren kudeaketa sistema integratuaren sailari jakinarazi beharko diotela identifikatutako egoera, zuzendu dezan. Langileek tailerrean identifikatzen dituzten eta haien ustez konpondu behar diren gai garrantzitsuak prebentzio ordezkarien bidez helarazi behar zaizkio Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeari, eta Batzordeak eskaera horiek hilero egiten dituen bileretan berrikusten ditu.

Edozein gertakari edo istripuren aurrean, eta larrialdi planean ezarritakoari jarraituz, langileek kudeaketa sistema integratuko teknikariari jakinarazi behar diote egoera, hark ikertzeari ekin ahal diezaion, eta etorkizunean egoera gertatzea saihesten saiatzeko beharrezko neurriak har ditzan. Gertakariak ikertzeko prozesuan, aztertu beharreko urratsetako bat da egiaztatzea arriskua dagokion arriskuen ebaluazioan identifikatu dela, eta baloratzea ea ebaluazioa berrikusi behar ote den, prebentzio neurriak hobetzeko.

Filialen kasuan, eta horien tamainaren arabera, segurtasun prebentzioa kudeatzeko langile propioak dituzte, baita arriskuen prebentzio gaietarako lan brigada espezifikoak edota langileen segurtasuna kudeatzeko kanpo laguntza azpikontratatua ere.

## Segurtasun eta Osasun Batzordea

Mondragon Assembly Aretxabaletak segurtasun eta osasun batzorde bat du, eta batzorde hori hilero biltzen da langileei euren egunerokotasunean eragiten dizkieten gai guztiak aztertzeko, baita langileen jarduerek beraien osasunean dituzten inpaktuak prebenitzeko eta arintzeko detektatutako beharrak ere.

Batzorde horrek 2022an aztertu zituen gaien artean, azpimarratzekoa da instalazioetan orga berri bat sartu zela, karga eta deskarga lanak seguruago egiteko, eta lantokiko lanpostu mugikorrak egokitu zirela programatzaileentzat, 2021ean egindako azterketa ergonomikoaren ondorioz.

Filialen kasuan, nahiz eta gehienek ez duten gai horiek aztertzeko batzorde espezifikorik, horietako bakoitzean figura bat dute langileen artean, segurtasun gaiei buruzko eskaerak eta kontsultak egiteko.

## Laneko osasun zerbitzuak

(GRI 403-3)

Estatuko legeriak adierazten duen bezala, Mondragon Assembly Aretxabaletak osasuna zaintzeko zerbitzu bat du, Kanpoko Prebentzio Zerbitzu batekin azpikontratatua, eta bere helburua da langileei beraien osasuna ziurtatzeko egin behar zaizkien azterketak maiztasun jakin batekin ezartzea, haien lanpostuko arriskuen arabera.

2022an, osasuna zaintzeko azterketen maiztasunak eta protokoloak eguneratu dira laneko arriskuen ebaluazio berrien irizpideetara.

Indarrean dagoen legeriak hala eskatzen dieten filialetan, osasuna zaintzeko kanpoko zerbitzuak dituzte.

Gainera, Aretxabaletako lantegiaren kasuan, Kooperatibako bazkideek urtean analitika oso bat egiteko aukera dute Lagun Aroko laborategiaren bidez.

Balio erantsiko zerbitzua eskaintzeari begira, Mondragon Assembly Aretxabaletak kanpoan kontratatutako Medikuntza Orokorreko mediku

baten zerbitzuak ditu Erakundeko langile guztientzat.

## Langileen osasuna sustatzea

Mondragon Assembly Aretxabaletak, Fagor kooperatibako kide denez, Lagun Aroko zerbitzu jakin batzuk ditu, hainbat zentro pribatutan koordinaketako mediku zerbitzuak izan ahal izateko iraupen mugatuko edo mugagabeko bazkide guztientzat.

Aretxabaletako lantokian, 2019az geroztik bizitza osasungarriko ekimena dago abian eta urtero ekimenaren planak egiten dira. Urtetik urtera ekimenaren irismena zabalduz joan da, eta 2021ean enpresa osasungarriaren Luxenburgo zigilua eskuratu zuen. 2022an hainbat jarduera jarri dira abian ekimen horren esparruan:

- Elikadura eta kirolari buruzko prestakuntza saioa
- Circuit-trainningeko masterclass
- Kirol jarduerak Kirolaren Europako astean
- Strava kirol erronka Mondragon Assembly Group osoan
- Yoga Masterclass

2022ari begira, enpresa osasungarriko ekintza plana prestatu da taldean, hainbat ekimenekin eta Strava kirol erronkaren bigarren denboraldiarekin.

Filialetan, hainbat ikastaro egin dira aurten, eta horien artean nabarmentzekoak dira Brasilen egindako segurtasun tailerrak eta Mexikoko brigaden entrenamendua.

2022an osasun psikosozialeko prestakuntzak eta laguntzak areagotzeko beharrari erantzutera bideratu dira esfortzuak, eta, horregatik, 2023ari begira, ongizate mentaleko gaien gaineko kontzientziazioa sustatzeko komunikazio batzuk planifikatu dira.

Gainera, langileentzat eta haien zuzeneko senideentzat laguntza psikologikoa doan eskaintzeko zerbitzu baten proba pilotu bat jartzeko lehen urratsak egin dira Aretxabaletako lantegian, Stimulus enpresaren eskutik. Zerbitzu horrekin, langileei eskaintzen zaizkien zerbitzu medikoen kartera indartuko da, eta asmoa da zerbitzua talde osora zabaltzeko. (GJH 3 osasuna eta ongizatea)

## Laneko osasunari eta segurtasunari buruzko prestakuntza

(GRI 403-5)

2022an, eta COVID-19aren neurriak bertan behera geratu ondoren, laneko segurtasun eta osasun arloko hainbat prestakuntza egin dira Aretxabaletako lantegian. Besteak beste, prestakuntza jarduera hauek nabarmendu daitezke:

- Suteak itzaltzea
- Lehen laguntzak
- Orga jasotzailearen erabilera (hitzarmenaren arabera)

Gainera, 2023ari begira, metalaren hitzarmenetik egiteke dagoen prestakuntza planifikatu da, 2022an prestakuntza zikloko ikasketak dituzten pertsonentzako prestakuntza baliozkotzeak eguneratu ondoren. 2023an, langileen %100i laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza eman nahi zaie, bai eta beren lanpostuko arriskuen ebaluazioaren neurri zuzentzaileei buruzko barne prestakuntza ere.

Pertsona berri bat enpresan sartzen denean edo langile bat lanpostuz aldatzen denean, harrerako barne prestakuntza bat ematen zaio langileari. Prestakuntza horretan, langileak kudeaketa sistema integratuaren eta jokabide kodearen politikak jasotzen ditu, eta Laneko Arriskuen Kudeaketa eta Prebentzio Sistema Integratuen gaineko prestakuntza ere jasotzen du, non are esplizituago azaltzen zaizkion hainbat gai, hala nola osasunaren zaintza, instalazioen eta bere lanpostuaren arriskuak, larrialdietarako neurriak, eta bere lanpostuko rolak eta erantzukizunak.

Laneko arriskuen ebaluazioa aldatzen den bakoitzean, langileei ebaluazio berriaren berri ematen zaie posta elektroniko bidez, eta beren lanpostuko arriskuei buruzko prestakuntza plan baterako deia egiten zaie.

Gainera, segurtasun eta osasun batzordeko partaideek, laneko arriskuen prebentziorako delegatuak diren heinean, dagokion ikastaroa egin behar dute batzordean sartu aurretik.

Larrialdi planean parte hartzen duten taldeak ere nahiko maiztasunez jasotzen dute larrialdiei buruzko prestakuntza, lehen laguntzetarako eta suteak itzaltzeko prestatuta egon daitezen, eta, larrialdi planean aldaketa bat dagoen bakoitzean, dagokion barne prestakuntza jasotzen dute. 2022an, Markuleteko instalazioetan lanera sartu direnek prestakuntza jaso dute, jarduerak eta instalazioak dituzten arriskuen gainean eta instalazio berriaren larrialdi neurrien gainean.

Filialetan, segurtasun eta osasun arloko hainbat prestakuntza egin dira, baita lanpostuko ergonomiari eta larrialdi planari buruzkoak ere, filial bakoitzean ezarritako prestakuntza planei jarraituz.

## Lan istripuagatiko lesioak

(GRI 403-9)

Arriskuen ebaluazioaren barruan, lanpostu bakoitzeko jardueraren arriskuak murrizteko prebentzio neurriak ezartzen dira, muntaketako protokolo espezifikoak, lan jakin batzuetarako prestakuntza bereziak, edo espezifikoen edo solairuarteko makina edo lan batzuen erabilerari buruzko jarraibideak eginez.

Beste enpresa batzuetako langileekin batera egiten diren lanen ondorioz instalazioetan gehitu daitezkeen beste arrisku batzuk kontrolatzeko, enpresa jardueren koordinazioa egiten da eta enpresa horietako langileak lantegira sartzea kontrolatzen da kontratatutako plataforma baten bitartez.

Mondragon Assembly Groupen instalazioetara sartzean, instalazioetan dauden arriskuen berri emateen da hainbat mekanismoren bidez (informazio panelak, jardueren koordinazioa, instalazioetara sartu aurreko prestakuntza...), istripuak, lesioak eta larrialdi posibleak saihesteko.

Hala eta guztiz ere, 2022an ezbehar tasaren datu hauek erregistratu dira taldean:

| Istripu motak | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Baja eragin duten istripuak** | **0** | **6** |
| Gizonak | 0 | 5 |
| Emakumeak | 0 | 1 |
| **Bajarik gabeko istripuak** | **10** | **11** |
| Gizonak | 2 | 11 |
| Emakumeak | 8 | 0 |
| **Istripuak guztira** | **10** | **17** |

| TFA (Istripuen Maiztasun Tasa) | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Istripu kopurua** | 8 | 17 |
| **Lan egindako orduak** | 5.929.111 | 2.190.632 |
| **TFA** | **1,35** | **7,76** |

**TFA = Istripu kopurua/lan egindako milioi bat ordu (in itinere istripuak ez dira kontuan hartzen)**

| Larritasun indizea | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Lan istripuagatik galdutako lanaldi kopurua** | 0 | 13 |
| **Lan egindako orduak** | 5.929.111 | 2.190.632 |
| **Larritasun indizea** | **0** | **0,01** |

**Larritasun indizea = Galdutako lanaldi kopurua/lan egindako mila ordu**

| TIEP (Gaixotasun Profesionalen Intzidentzia Tasa) | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Gaixotasun profesionalen gertakarien kopurua** | 0 | 0 |
| **Lan egindako orduak** | 5.929.111 | 2.074.532 |
| **TIEP** | **0** | **0** |

**TIEP = gaixotasun profesionalen eragindako gertakarien kopurua/lan egindako milioi ordu**

| Lan istripuak edo gaixotasun profesionalak eragindako heriotzak | 2022 | 2021 |
|---|---|---|
| **Heriotzak** | 0 | 0 |
| **Ondorio larriak izan dituzten lesioak** | 0 | 0 |

2022an, guztira, 10 istripu izan ziren, lan-bajarik gabeak. Istripu horien artean, bi istripu izan ziren, in-itinere trafikokoak, eta lan-jarduerarengatik baja eman ez duten zenbait kolpe eta estropezu. Hori erakundearen larritasun-indizean islatzen da, 0 baita.

## 5.5.- Euskararekiko konpromisoa

### Euskara batzordearen funtzionamendua

Euskara Batzordea Mondragon Assembly Aretxabaleta kooperatibako hainbat sailetako 8 kidek osatutako lantaldea da. Euskara Planaren koordinatzailea eta Kontseilu Errektoreko kide bat dira 8 kide horietako bi; gainerako kideek, berriz, zubi lana egiten dute tailerreko arlo desberdinen eta Euskara Batzordearen artean.

Batzordea hilero biltzen da, eta lantaldeak urteko Gestio Planean zehaztutako ekintzen arabera banatzen dira. Euskara Batzordea arduratzen da ekintza horien eragilea izateaz eta ekintzen jarraipena egiteaz. Beharrezkoa denean, komunikabide bat baino gehiago erabiltzen dira organoei zuzendutako mezuak transmititzeko eta kooperatibako langileengana iristeko eta haiekin dinamika desberdinak abian jartzeko ere bai.

### Euskara Plana

Mondragon Assemblyko Euskara Planak 20 urte baino gehiagoko ibilbidea du, eta denbora horretan aurrera egin du hizkuntza normalizazioan. Lau urtean behin Euskararen Plan Estrategikoa egiten da kooperatibako kideekin batera, eta bertan urteko Kudeaketa Plana egiten da, planteatzen diren erronken arabera. 2021-2024 aldirako egin zen Plan Estrategikoan misio handia ezarri zen: Mondragon Assembly euskaraz normaltasunez bizi den enpresa da"; horren adibidea da 2018z geroztik erregistratu diren euskararen erabilerari buruzko datuak:




2022ko Kudeaketa Planean erronka hauek jasotzen dira:

- Euskara Laneko Hizkuntza izatea;

- Kooperatibaren barruan harremanak euskaraz izatea;
- Gizarte eragileekiko harremanak eta eredua;
- Pertsonen eta langileen inplikazioa indartzea.

Aipatutako erronkei erantzuteko egiten diren bileretan eragiteko metodologia bat dago, beharrezko neurketak egiten dira, kooperatibaren barruan hizkuntza ohituretan eragiteko mekanikak martxan jartzen dira, lankide guztien artean motibazio ekintzak egiten dira...

Hala ere, 2022an garrantzi handia hartu du Mondragon Assembly Groupen Hizkuntza Politika definitzeko prozesuak. Prozesu bat egin da, lankide askoren parte hartzearekin, talde osoan dauden hizkuntzen kudeaketa nola egin zehazteko eta eguneroko lan harremanetan hizkuntza bakoitzak bete behar duen lekua erabakitzeko, euskararen normalizazioan aurrera egiteko.

6

# PLANETAREKIN KONPROMETITUTAK O TALDEA GARA

## 6.1.- Ingurumenaren kudeaketako sistema

*“Mondragon Assemblyk agintzen du ingurumena errespetatuko duela, produktu ez-kaltegarriak erabiltzen saiatuz eta **ingurumeneko inpaktua eta kutsadura prebenituz**, hondakin gutxiago sortuz eta baliabide gutxiago kontsumituz.*

(GRI 3-3A, 2-23, 2-24, 2-25)

Mondragon Assembly S.Coop.ek **ISO 14001:2017** arauaren araberako ziurtagiria du Aretxabaletako lantegirako. Giza Baliabideetako departamentuaren barruan dagoen Kudeaketako Sistema Integratuen departamentuaren bidez kudeatzen da, eta Zuzendaritza Kontseiluak gidatzen du.

Ingurumena kudeatzeko sistema 2017az geroztik dago ezarrita Aretxabaletako lantegian, arrakastaz. Sistema hori erakunde osoan ezaguna den eta interesa duten alde guztientzat webgunean eskuragarri dagoen **Kudeaketa Sistema Integratuaren Politikan** oinarrituta dago, eta eskuragarri dago erakundearen webgunean interes taldeek eskura izan dezaten:

https://www.mondragon-assembly.com/es/integrated-systems-and-certifications/

Ziurtagiriaren eskakizunen ondorioz, Mondragon Assemblyk identifikatuta ditu bere jarduerak kaltetzen dituen **ingurumeneko alderdiak**. Urtero egiten da ingurumeneko alderdi horien jarraipena, identifikatzaile batzuen bitartez, eta ekintza planak ezartzen dira esanguratsutzat jotzen diren alderdietako ondorioak arintzeko.

Horrez gain, Aretxabaletako larrialdi planaren barruan, ingurumeneko arriskuen ebaluazioa egiten da **larrialdi egoeretarako**, eta larrialdi neurri egokiak ezartzen dira istripuak ingurumenean eraginik izanez gero.

### Inpaktu, arrisku eta aukera nagusiak

Urtero, testuingurua eta alde interesdunen beharrak eta itxaropenak berrikusten dira, **ingurumenaren arloan dauden arriskuak eta hobetzeko aukerak** aztertu ahal izateko. Arrisku eta aukera horiek identifikatu ondoren, aldian garatu beharreko helburuak eta proiektuak ezarri eta lehenesten dira, eta, horrez gain, urteko kudeaketa plan bakoitzean helburu horien lorpen maila berrikusten da.

2022an, ingurumen arloko inpaktu, arrisku eta aukera nagusi hauek identifikatu ziren:

| **Inpaktu nagusiak** | |
|---|---|
| Alderdia | Inpaktua |
| Ingurune naturaleko kalteak bezeroaren etxean dagoen bitartean | Baliabide naturalen agorpena |
| Sareko energiaren kontsumoa guztira | Baliabide naturalen agorpena |
| Langileak prest jartzera joatea | Baliabide naturalen agorpena |
| Langileen instalazioetara joatea | Baliabide naturalen agorpena |
| Makinak bezeroaren etxera garraiatzean eguratsera kutsatzaileak igortzea | Baliabide naturalen agorpena |
| CO2 emisioak txatarra garraiatzean | Airearen kalitatearen alterazioa |
| Hondakin ez-arriskutsuak sortzea | Lurzoruaren/lurpeko uren balizko kutsadura |
| Hondakin arriskutsuak sortzea | Lurzoruaren/lurpeko uren balizko kutsadura |
| Kontsumo elektrikoa, kutsadura murrizteko aukera | Baliabide naturalen agorpena |
| Ordezko piezen birziklapena | Lurzoruaren/lurpeko uren balizko kutsadura |
| Txatar bihurtzean sortutako hondakinak | Lurzoruaren/lurpeko uren balizko kutsadura |
| Merkatuan jarritako hondakinak | Lurzoruaren/lurpeko uren balizko kutsadura |
| Makinek sortutako zarata | Soinu maila handitzea |

**Arriskuak**

- Europan gero eta araudi murriztaileagoak dira, eta arriskua da Mondragon Assembly atzean geratzeko Aretxabaletako lantokiari eta proiektu globalei etorkizun hurbilean eskatuko zaizkien gaietan (bezeroa/agintaritza /...).
- Bezeroen baldintzak iraunkortasun eta karbono aztarnako ekimenei dagokienez

**Aukerak**

- 3 irismeneko karbono aztarna kalkulatzeko urratsak egiten hastea
- Hondakinak murrizteko ekintza plan posibleak planteatzea
- Egoera ez-finantzarioaren egiaztapenean gomendatutako neurriak abian jartzea
- Mondragon Assemblyn ekoitzitako lerroen ingurumen inpaktua erregistratzea

## Legea betetzearen kontrola

**Legea betetzen dela kontrolatzeko**, Aretxabaletan lege auditoretza bat ezarri da, ingurumen gaiei eragiten dieten arauen aldaketak aztertzeko, kontratatutako aplikazio baten bidez, hileko buletinen bidez Erakundeari eguneratuz eta informazioa emanez. Gainera, Fagor Taldeak hainbat hitzaldi eta bilera egiten ditu ingurumen gaietan dauden joerei eta arau aldaketei buruz.

2022an, ez da lege hausterik identifikatu ingurumen kontuetan. Kontrol gehigarriko neurri gisa, kanpo enpresa batek urteko auditoretza egiten du ISO14001 arauaren arabera.

Gainera, 2022tik, karbono aztarna kalkulatu behar denez eta txosten hau egiteko adierazleak behar direnez, filialak monitorizatzen hasi dira ingurumen gaietan. 2023ari begira, taldean datuak biltzeko metodologia sistematizatu nahi da.

## Ingurumena kudeatzeko sistemaren ebaluazioa eta jarraipena

(GRI 308-2)

Aretxabaletan, ingurumena kudeatzeko sistema urtero ebaluatzen da, **ziurtagiriaren barne eta kanpo auditoretzen** bitartez. Auditoretza horietan, barruko prozeduren eraginkortasuna ikuskatzen da, bai eta eguneroko jardunean prozedurak betetzen diren ere.

Gainera, gobernu organo gorenak, **Zuzendaritzak egiten duen ikuskapenaren bidez**, ingurumen alderdien ebaluazioaren eta ondorengo ekintza planen jarraipena egiten du, baita urtean identifikatutako arrisku eta hobekuntza aukerena eta aurreko urtekoen jarraipena ere. Gai garrantzitsuren bat identifikatzen denean, Zuzendaritza Batzordean aurkezten da, aztertzeko.

Ingurumen ebaluazioaren emaitzak barne komunikazioko SIG buletinaren bidez jakinarazten zaizkio erakundeari.

## Zuhurtasun printzipioaren aplikazioa

**Zuhurtasun printzipioaren** aplikazioari dagokionez, adierazi behar da Mondragon Assemblyk eskaintzen duen produktua dela bezeroak azken produktuaren fabrikaziorako behar duenaren arabera berariaz diseinatutako fabrikazio lerroak. Mondragon Assemblyk, bere jardueran, bezero zehaztapenen araberako materialak biltzen ditu eta, ondoren, material eta makina horiek muntatu egiten ditu, diseinatutako fabrikazio prozesua lortzeko.

Oso ekipo espezifikoak direnez, ez da marjina handirik izaten lerroan integratu beharreko

ekipoak erabakitzerakoan. Orain arte, eskainitako produktuetan ez da ingurumen ikuspegiekin garapen handirik egin. 2023ari begira, erakundeko makina errepikakorretako baten bizi zikloaren azterketa egin ahal izateko lehen urratsak egingo dira, ingurumenean duen eragina baloratze aldera. Gainera, Kooperatibak berrikuntza departamentu bat du, efizientzia hobetzea eta fabrikazio modu berriak etengabe bilatzen dituena, batez ere Eguzki energiaren negozioan, non makinak eta ekoizpen prozesua estandarragoak diren. Bere jardueren barruan, biki digitalen arloa eta produktu iraunkortasunarekin zerikusia duten beste alderdi batzuk ikertzeko kanalak ireki dira.

Produktuaren Bizi Zikloaren ikuspegitik ingurumen alderdiek izan duten emaitzaren ondoren, ingurumen printzipioa ekoizpen prozesuaren barruan txertatzeko ekintzak proposatu dira.

## Ingurumen baldintzak hobetzeko bideratutako baliabideak

**2022ko ekitaldian, 75.922,76 euroko aurrekontua onartu zen, ingurumen baldintzak hobetzeko.** Zehazki, honetarako erabili ziren baliabide horiek:

- Instalazioak hobetzeko berrikuntza-proiektuak, Aretxabaletako instalazioen fatxadan eguzki-parkea jartzea barne
- Legezko eskakizunak CNAE-aren arabera eguneratzeko plataforma eta legezko ikuskapena kudeatzeko jarduera.
- Jasangarritasun-memoria egiteko baliabideak
- Instalazioetako hondakinen kudeaketa.
- Argiteria hobetzea eta Aretxabaleta eta Markuleteko instalazioetako argiak aldatzea.

## 6.2.- Klima aldaketa

*"Munduan dugun larrialdi klimatikoko testuinguruan, Mondragon Assemblyren asmoa da bere enpresa jarduera garatzea eta aldi berean ingurumenaren ahalik eta gehien babestea, eta horren aldeko apustua egingo du."*

(GRI 305-1, 305-2)

Energiaren erabilera efizienteak iturri berriztagarriei ematen die lehentasuna, hornidura elektrikoan berotegi efektuko gas gutxiago igortzeko.

**2022tik Mondragon Assembly Aretxabaletako instalazioetan kontsumitutako energia guztia %100 berriztagarria da jatorriari begiratuta.**

Klima aldaketaren aurka borrokatzeko konpromisoan aurrera egiteko, 1 eta 2 irismenetarako karbono aztarna kalkulatzen jarraitzen da taldean, eta 3 irismeneko lehen neurketa egin da Aretxabaletako eta Markuleteko instalazioetarako. Neurketa horrekin ekitaldian lortutako emaitzen gaineko txostena 2022an egin da, eta hauek dira emaitzak:

| 2022ko karbono aztarna korporatiboa, iturrien arabera, tCO2eq balioan | | | |
|---|---|---|---|
| **IRISMENA** | **AZPIKATEGORIA** | **ITURRIA** | **GUZTIRA** |
| 1 IRISMENA: BEG-EN ZUZENEKO EMISIOAK | ITURRI FINKOAK | C gasolioa | 153.92 |
| | ITURRI FINKOAK | Gas naturala | 7.78 |
| | ITURRI MUGIKORRAK | A gasolioa | 13.30 |
| | EMISIO IHESKORRAK | R-407C | 4.87 |
| 1 IRISMENA: BEG-EN ZUZENEKO EMISIOAK | | | 179.88 |
| 2 IRISMENA: INPORTATUTAKO ELEKTRIZITATEAREN BEG-EN ZEHARKAKO EMISIOAK | ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOA | Berriztagarria | 0,00 |
| | | Ez-berriztagarria | 485.24 |
| | | Location-based | 621.02 |
| 2 IRISMENA: INPORTATUTAKO ELEKTRIZITATEAREN BEG-EN ZEHARKAKO EMISIOAK | | | 485.24 |
| GUZTIRA (Market-based) | | | 665.13 |
| GUZTIRA (Location-based) | | | 800.9 |

Kalkulua ISO 14064:1-2018 arauaren arabera egin da, arau aitortutako erakundeek argitaratutako eta arau horren araberako kategorietan bereizitako erreferentziako igorpen faktoreak erabiliz.

Mondragon Assemblyren BEGen emisioak epe ertain eta luzera murrizteko borondatez ezarritako helburuak 2023an zehaztuko dira, NET-0 erakunde izatera iritsi ahal izateko ekintza plana marraztu ondoren.

Hauek dira, besteak beste, 2022an hartutako BEGen emisioak murrizteko neurriak:

- Taldean Berrikuntza arlotik egin daitezkeen lankidetza proiektuak.
- Karbono aztarnaren eta ingurumeneko ondorioak murrizteko estrategien arloan prestakuntza ematea sistemaren arduradunei.

## 6.3.-Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa

(GRI 306-1, 306-2)

Mondragon Assemblyren ustez, ekonomia zirkularra da **baliabideak aprobetxatzeko sistema bat, elementuak murrizteari lehentasuna ematen diona.**

Aretxabaletan, instalazioen barruan uretan gora sortutako hondakinen kudeaketa egiten da, batez ere instalazioetara garraiatutako produktu eta osagaien enbalajeena.

Uretan behera sortzen diren hondakinei dagokienez, gomendioak daude makinen eskuliburuan, bezeroak produktua txatar bihurtzeko unean ingurumen gaiak kontuan har ditzan. Bi kasuetan, Mondragon Assemblyk hondakinak murrizteko aukera gutxi ditu, baina enbalaje horietan erabili beharreko materialei lotutako ingurumen baldintza jakin batzuk definitzeko prozesuan dago, horiek berrerabiltzea edo birziklatzea ahalbidetzeko.

Gainera, enbalaje hondakinak murrizteko eta aprobetxatzeko, erakundeak bere biltegiaren bidez egindako pakete bidalketa guztiak materialak biltzeko kartoi kutxak zein horien burbuilen plastikoak berrerabiliz egiten dira, baliabide natural berriak agortzea saihesteko.

Bezeroak eskatuta proiektu batzuetan ordezkatutako ekipoak berrerabiltzeari dagokionez, betiere horien egoera eta bermea optimoak badira eta makinaren funtzionamendurako kritikotzat jotzen ez badira, proiektu berrietan jartzen dira berriro edo berrikuntza departamentuan erabiltzeko eta aprobetxatzeko entregatzen dira. Horiek txatar bihurtu aurretik, dagokionari ematen zaizkio dohaintzan. Horren adibidea da Aretxabaletan ordeztu eta inguruko elektrizitate enpresa bati emandako CPU-a. 2023an hondakin horien balorizazioa kontabilizatzen hasi nahi da, prozesu horiek iraunkortasunaren eta ekonomia zirkularraren ikuspegitik kudeatu ahal izateko (GJH 12 ekoizpen eta kontsumo arduratsua).

Hondakinen barne kudeaketari dagokionez:

- Hondakin arriskutsuak hirugarrenek kudeatzen dituzte, legeek horien gainean ezartzen dutena betetzea ziurtatuta, eta egiaztatuko da kasuan kasuko enpresa erregistro ofizialetan alta emanda dagoela eta garraiorako eta txatar bihurtzeko edo hondakinen kudeaketarako homologatuta dagoela.

- Hiri hondakin ez-arriskutsuak ere kanpo erakunde batek kudeatzen ditu, eta erakunde hori modu berean zaintzen da.
- Plastikoak, paperak, hondakin organikoak eta errefusa mankomunitateak kudeatzen dituzte.

Filialen kasuan, filialek hondakinak erretiratzea kudeatzen dute, herrialde bakoitzari dagokion legeria betez.

Jarraian, ekonomia zirkularrarekin eta Taldearen jardueratik eratorritako hondakinekin lotutako zifra batzuk aurkezten dira:

| 2022ko hondakinak, motaren eta deuseztapen metodo arabera | |
|---|---|
| **Hondakin arriskutsuen** pisu osoa **(Kg)** | GUZTIRA |
| Zabortegia | 1.294 |
| **Hondakin ez-arriskutsuen** pisu osoa **(Kg)** | GUZTIRA |
| Birziklatzea | 19.318 |
| Zabortegia | 454.765 |

Azpimarratzekoa da Mondragon Assemblyko hondakinen kategorizazioaren barruan, hondakin arriskutsutzat hartzen direla taladrina hondarrak, pilak, pintura poteak, aerosol poteak, kristalak, eguzki modulu baztertuak, ekipo elektrikoak, fluoreszenteak, produktuen ontzi huts kutsatuak eta ikatz aktiboko hondakinak.

**2022an 27.924,27 €erabili dira Aretxabaletan s ortutako hondakinak kudeatzeko.**

## 6.4.- Baliabideen erabilera jasangarria

### Ura

(GRI 303-1, 303-5)

Mondragon Assembly Groupeko instalazioetan ur korronte sanitarioa baino ez da erabiltzen, konketetako zisternak, txorrotek eta dutxek erabilitako ura, alegia. Beraz, Aretxabaletako instalazioetan egindako kontrol bakarra kanpoko enpresa batek aldizka egindako legionela ikuskapenak eta instalazio orokorretako langileek egindako tenperaturen kontrola dira. Ez dago ur isurketarik ur sanitarioaren isurketetatik haratago.

Gainera, talde mailan, ur-kontsumoa zuzena da udal-horniduren saretik; guztira 1.803.266 l ur kontsumitu dira, 2021. urtean baino % bat gehiago (4.535.000 litro) (GJH 6 ur garbia eta saneamendua).

### Lehengaiak eta materialak

Mondragon Assembly osoan, makinak muntatzeko erositako osagaiak dira lehengai nagusia, hau da, fabrikazio makinetan muntatzen diren makina eta osagai elektronikoak, biltegira iritsi ahala, makinen barruan enbalatu eta muntatzen direnak.

Mekanizazio eta elikadura eremuan ere altzairu eta aluminio bloke txikiekin egiten da lan, eta horiek, batzuetan, instalazioen barruan konformatzen diren arren, normalean hirugarrenei eskatzen zaie eta instalazioen barruan ukituak egiten zaizkie. Beraz, lehengaien stocka minimoa da. 2022an, 17.839.430€-ko gastua suposatu dute lehengai hauek.

Mekanizazio eta elikadura eremuan ere altzairu- eta aluminio-bloke txikiekin lan egiten da. Batzuetan, instalazioen barruan konformatzen da, baina, normalean, hirugarrenei eskatzen zaie, eta instalazioen barruan ukituak egiten zaizkio; beraz, lehengaiaren stocka oso txikia da. 2022an, aluminio-kontsumoa 4.390€-koa izan zen, eta altzairu-kontsumoa 2.180€-koa, taldean.

Erabiltzen den beste lehengaietako bat kable elektrikoak eta torlojuak dira, makinak muntatzeko erabiltzen direnak. 2022an 3.013.879€ eta 423.661€ gastatu dira, hurrenez hurren.

Instalazioetan lehengai gutxi erabiltzen denez, normalean modu efizientean erabiltzen da, eta fabrikazio prozesuan konformatu ondoren kantitate txikia baztertzen da hondakin gisa.

### Energiaren erabilera jasangarria

(GRI 305-5)

Mondragon Assembly S.Coop.ek panel fotovoltaikoak ditu Aretxabaletako lantegiaren teilatuan, autokontsumorako, 100 Kw-ko potentziarekin. 2022an Aretxabaletako eraikinaren alboko fatxadan instalazio fotovoltaikoa egin du berrikuntza arloak, BIPV moduluekin, frogatzeko eta autokontsumorako. (GJH 7 energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea).

Alemaniako instalazioetan, inbertsio handia egin da bere estalkian 286kW-ko parke fotovoltaikoa instalatzeko.

2021aren hasieratik, efizientzia energetikoa hobetzeko ekintzak egiten ari dira Aretxabaletako instalazioetan, izan ere, energia primarioaren kontsumoan D maila (140) lortu zen eta urteko $CO_2$ emisioen C maila (23).

Erakundearen barruan, 2022an, energia-kantitate hau kontsumitu da: %36 jatorri berriztagarria edo autokontsumoa. Datu hori garrantzitsua da 2021eko jatorri berriztagarriaren %6arekin alderatuta. Hori, neurri handi batean, Aretxabaletak energia ziurtatua eta berriztagarria erosteko banatzailearekin egindako kontratuaren ondorio da.




| ENERGIA KONTSUMOA (kWh) | 2021 | 2022 |
|---|---|---|
| Jatorri berriztagarrikoa (kWh) | 0 | 628.252 |
| Jatorri ez berriztagarria (kWh) | 1.780.304 | 1.297.190 |
| Autokontsumoa (kWh) | 107.640 | 109.840 |
| GUZTIRA | 1.887.944 | 2.035.282 |
| % jatorri berriztagarria | %6 | %36 |

## Biodibertsitatea

Aretxabaletan egiten den ingurumen alderdien azterketaren barruan, makineriaren ekoizpenarekin zerikusia duten gaietan biodibertsitateari eragiteko aukera aztertu da. Gune nagusi gisa, ingurumeneko gune babestuetan bulego- eta fabrikazio-eraikinak sortzea identifikatu dugu. Arrisku hori oso txikia da, Mondragon Assemblyren instalazio guztiak biodibertsitaterako babestutako guneetatik kanpo baitaude, guztiak industrialdeetan. Bigarren inpaktua instalazioetan sortzen den zaratak eta tokiko faunari eragiten dion kalteak eragin dezakete. Arrisku hori oso txikia da, izan ere, muntatze jardueren soinu-emisioek ez dute etengabeko zaratarik sortzen eta jarduerak instalazioen barruan egiten dira beti, kanpoko zarata saihestuz.

# 7

# GARAPEN KOMUNITARIOA BULTZATZEN DUEN TALDEA GARA

(GRI 2-23, 2-24, 201-1, 203-1, 203-2, 413-1)

Kooperatiba talde bat gara, Debagoiena eskualdearen garapen sozioekonomikoa elkartasun eta autoantolaketa komunitariotik bultzatzeko sortua.

Mende berriak erronka berriak dakartza, eta premiazkoa da, lurraldeak, enpresak bezala, iraunkortasunera igaro daitezela. Horretarako, Fagor Taldean aliantzak sustatzen ditugu gainerako eragileekin, bide hori elkarrekin egiteko, Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko lankidetzan arituta. Hori 17. GIH-arekin bat dator. Helburuak lortzeko aliantzak.

Euskadiko Kooperatiben Legeak ezartzen duenaren arabera, kooperatibok urteko irabazien %10 Funts Sozialera bideratu behar ditugu. Hala ere, legezko %10aren ordez, Fagor Taldean %12 bideratu dugu funts honetara, gizartearen erronkekin dugun konpromisoaren erakusgarri.

Funts horren bidez, gizartearen autoantolaketa sustatzen dugu, Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko palanka gisa. Zentzu horretan, 2022an, 2.782.280 € bideratu ditugu Fagor Taldeko Funts Sozialetik hurrengo lau eskalei lotutako hainbat proiektutara.




## 7.1.- Sektoreko eta inguruneko elkarteetako kide izatea

(GRI 2- 28)

Mondragon Assemblyk harreman ugari ditu interes kolektiboen defentsarako kanpo erakundeekin, eta harreman ugari horiek dira lankidetzaren eta kooperazioaren alde egiten duen apustuaren erakusgarri. Erakunde horiek Taldearen aliatu bihurtzen dira beren proiektu sozioenpresariala garatzerakoan.

2022an, Mondragon Assemblyk inguruko fundazio hauekin aritu da lankidetzan:

- **GOIENER**
- **Gurutze gorria**
- **Mundukide**

Aipatu daiteke, halaber, Mondragon Assembly munduko **zortzi zentro teknologikorekin** lankidetzan ari dela, batez ere produktuen eta prozesuaren berrikuntzan garapenak egiteko, eta une honetan 10 proiektu baino gehiago ditu aktibo.

Gainera, Euskadiko kooperatiben legeak ezartzen duen bezala, **Fagorrek IPDK funts bat du** (Kooperatiba sustapen eta heziketa funtsa), zeina Taldea osatzen duten kooperatibek elikatzen duten urtean dituzten irabazien %10 horra bideratuta.

Fagorrek %2 gehiago bideratzen du funts horretara, partaide den komunitatearekin duen konpromisoaren erakusgarri.

Funts honen zatirik handiena epe luzera inpaktua sortu nahi duten proiektu estrategikoak bultzatzeko erabiltzen da, eta hain handia ez den zati bat gizarte, kultura eta kirol eragile ugariri laguntzak emateko erabiltzen da.

Mondragon Assemblyk, **sozietatearen benetako beharrei erantzuteko ingurunearekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartuta duenez, guztira 447.810€ bideratu zituen funts horretara 2022ean.** Elkarrekiko lankidetza proiektu hori “Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzeko irizpideei buruzko 1/2018 Araua» (IPDK) izeneko arauaren mende dago, eta arau horrek ezartzen du Fagor Taldeko kooperatiben irabazien %12 Hezkuntza, Garapen Soziala eta Kooperatiba arloetako laguntza komunitarioaren proiektuak garatzen laguntzera bideratu behar direla.

Baliabide ekonomikoekin batera, Mondragon Assemblyko pertsonak daude, konpromiso horren alde balioa emateko lan egiten dute-eta.

Jarraian, Fagorrek funts horren bidez bultzatzen dituen proiektu estrategikoak deskribatzen dira.

IPDKren zati bat Fagor Taldeko kooperatibak dauden herrietako elkarteen jarduna diruz laguntzera bideratzen dugu. Zehazki, 2022an 192.787 € bideratu ditugu sustapen horretara.

## 7.2.- Garapen komunitarioa

### Debagoiena 2030

"Debagoiena eskualdearen iraunkortasunerako trantsizioa sustatzen dugu, eta hezkuntza azpiegiturak garatzen ere laguntzen dugu".

**Fagor Taldeko kooperatiben ekoizpen lantegi gehienak kokatuta daudeneko lurraldearen garapen jasangarria bultzatzeko sortutako sarea da Debagoiena 2030**.

Debagoiena eskualdeak iraunkortasunerako trantsizioa egin dezan bailarako hainbat eragilek (unibertsitatea, erakunde publikoak, enpresak eta gizarte eragileak) elkarrekin aritzea beharrezkoa dela sinetsita, 2018an Debagoiena 2030 ekimena bultzatzearen alde egin genuen. Epe luzerako apustua da, eta, eragileen arteko lankidetzan oinarrituta, Europako Itun Berdean zehaztutako erronkei erantzuna ematea du helburu nagusi. Askotariko ekimenak eta proiektuak lantzen ditu horretarako. Hauek dira Europako Itun Berdean jasotzen diren eta Debagoienak lehentasunezkotzat jotzen dituen arlo nagusiak:

- Industria ekonomia zirkularrerantz eraldatzea.
- Trantsizio energetikoa.
- Mugikortasun jasangarria eta adimenduna.
- Tokiko elikagaien ekoizpena.
- Ekosistemak eta biodibertsitatea zaintzea eta leheneratzea.

2022an arreta berezia jarri da trantsizio energetikoaren portfolioa lantzeko (GJH 7 energia eskuragarria eta ez kutsakorra). Portfolio hori diruz laguntzeaz gain, energia komunitateen garapenean inplikazio berezia izan dugu. Eskualdean sortzen ari diren energia komunitateetako bazkide laguntzaile izateko konpromisoa hartu dugu, kooperatiben administrazioan eta kudeaketan dugun esperientzia energia komunitateen esku jarriz. Gainera, 2022an 335.400 €-ko ekarpen ekonomikoa egin diogu Leintz bailarako Ekiola proiektuari.

Guztira, 2022an 937.860 € bideratu ditugu Debagoiena 2030 proiektura.

### Elkarrekin Herrigintzan programa

Sarreran aipatu bezala, Fagor Taldeko kooperatiba komunitatea bultzatzeko, 2022an Fagor Elkarrekin tresna jarri dugu abian. Uztailean ekin genion ekimenari, eta urte amaierarako 718 pertsona zeuden erregistratuta.

Oro har, 18 ekimen argitaratu ditugu Fagor Elkarrekin tresnan. Horietatik 3 boluntarioentzako eskaintzak izan dira; 2 dohaintza eskaerak izan dira (horien artean, Ukrainako gerraren eragina jasaten duten haurrentzako edateko ura, higiene eta osasun produktuak eta laguntza psikosoziala bermatzen laguntzeko funtsak biltzea); beste bat Fagor Herrigintzaren programa bozkatzeko dinamikarako eta beste bat materialak biltzeko kanpainarako.

Gainerako 11 argitalpenen bidez, berriz, hainbat gizarte eragileren ekimen eta proiektuei buruzko informazioa helarazi diegu bazkideei. Informazioa eskaintzeaz gain, batzuetan ekimen horiekin lotutako zozketak ere egin ditugu, HAZIA musikalaren kasuan bezala. Guztira, 50 sarrera bikoitz banatu ditugu Fagor Taldeko bazkideen artean.

Gainera, 2022an 12.000 € eman ditugu EITBko maratoirako.

Guztira 54.584 € erabili ditugu Funts Sozialetik Fagor Elkarrekin programako ekimenak finantzatzeko.

### Tokiko elkarteen sustapena

IPDKren banaketaren zati bat gure kooperatibak kokatuta daudeneko herrietan diharduten elkarteen jarduera diruz laguntzera bideratzen da.

## 7.3.- Hezkuntzarekiko konpromisoa

### Gizabidea

Gizabidea Fundazioaren bidez, 40 urte baino gehiago daramatzagu lurraldeko hezkuntza eragile kooperatiboekin lankidetzan, eskualdean kalitatezko hezkuntza eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegituren finantzaketan lagunduz. Urte luze hauetan guztietan Gizabidea Fundazioak Arrasateko Unibertsitatearen garapenean aritu da bereziki, besteak beste, unibertsitatea eskualdearen eta bere enpresa sarearen garapenerako eragile estrategikoa dela ulertu duelako.

2022an hainbat hitzarmen sinatu ditugu MGEP, HUHEZI eta Arizmendi Ikastolarekin, eta

hamarkada batean diruz lagunduko diren proiektuak zehaztu dira.

Guztira, 2022an 602.460 € bideratu ditugu Gizabidea Fundaziora.

## 7.4.- Garapenerako lankidetza

### Mundukide

Kooperatibismoaren bokazio unibertsalari erantzuteko eta garapen bidean dauden herrialdeei garapen komunitarioko prozesu endogenoak sortzen laguntzeko, Mundukide Fundazioa sortu genuen duela hamar urte baino gehiago, MONDRAGONeko beste kooperatiba batzuekin eta tokiko hainbat Gobernuz Kanpoko Erakunderekin batera (GJH 11 hiri eta komunitate iraunkorrak). Mundukidek batez ere Mozambiken eta Brasilen garatzen du bere lana, eta urteak daramatza, filosofia kooperatiboarekin bat etorriz, haien komunitateen garapen endogenoa sustatzen.

Patronatuko kide gara, eta aktiboki parte hartzen dugu Fundazioaren erronketan. Beren jarduera finantzatzeaz gain, gure kooperatibetako bazkideek aukera dute Mundukidek programak dituen herrialdeetan kooperante gisa parte hartzeko.

2022an 230.984 € bideratu ditugu Mundukide Fundaziora, 1. GIHarekin -Pobreziaren amaiera- dugun konpromisoaren erakusgarri.

### Garabide

Garabide hizkuntza gutxituak berreskuratzeko prozesuetan laguntzen duen erakundea da (4. GJD, kalitatezko hezkuntza, 10. GJD, desberdintasunak murriztea), euskara berreskuratzeko prozesuaren ikaskuntzak beste herrialde batzuetako prozesuekin partekatuz eta, aldi berean, haien esperientzietatik ikasiz. Komunitate horiekin lan egiten du, hizkuntza berreskuratzeko prozesuarekin garapen sozioekonomikoa aberasteko.

2022an, 10.000 € bideratu ditugu Garabide elkartera.

## 7.5.- Fagor Komunitatea

Garapen Iraunkorreko Helburuekiko konpromisoa instituzionala izateaz gain, Fagor Taldeko kide garen pertsonena ere izatea nahi dugu. Horretarako, gure pertsonei parte hartzeko aukera bat baino gehiago eskaintzen dizkiegu.

Eraldaketa Sozialeko Batzordea, kooperatibetako ordezkariez osatua, ildo hau lantzeko ardura duen organoa da, eta hauek dira 2022aren hasieran zehaztutako konpromisoak:

- Fagor Mugi proiektua indartu, Fagor Taldeko pertsonen lanerako joan-etorriak modu jasangarriagoan egin daitezen bultzatzeko.

- Kontsumo indibidualerako ohiturak azpimarratu, inguruan ditugun proiektuei ikusgarritasuna emanda eta erosketa arduratsua sustatuta, besteak beste; eta baita energia kontsumoaren inguruan sortzen ari diren komunitateei buruzko informazioa eskaini ere (herri eta eskualde mailan prestatzen ari direnak).
- Inklusio sozialean oinarritutako proiektuei jarraipena egin eta horietan parte hartzeko aukerak aztertu.
- Fagor Taldeko Funts Sozialaren bidez, hainbat gizarte eragilerekin ezarritako lankidetza bideak indartu, funts honen zati bat banatzeko prozesu berri bat diseinatu, Euskal Herri osoko elkarteak horietan parte hartzera gonbidatu eta Fagor Taldeko pertsonek zein proiektu lagundu erabaki ahal izateko bideak sortu.

Horri guztiari erantzuteko, 2022aren hasieran Fagor Taldeko pertsonen barne komunikazioa eta parte hartzea bultzatzeko tresna digital berri bat abiaraztea aurreikusi genuen, eta hortik sortu da Fagor Elkarrekin tresna.

Aipatutako ekimen batzuek zuzenean erantzuten diote bazkideen aktibazioari.

